


JARDUEREN AZALPENA



Datuak Babesteko
Euskal Bulegoa
Agencia Vasca de
Protección de Datos

Argitalpena:

© Datuak Babesteko Euskal Bulegoa

Argitaratzailea: Datuak Babesteko Euskal Bulegoa

Internet: www.avpd.es

Jabetza intelektualaren eskubideak babesten du lan hau. Legeak aitortzen dizkion eskubide guztiak gordeta dauzka, honakoak barne: itzulpena, berrinprimaketa, irratia bidezko, telebista bidezko nahiz Internet bidezko (web orria) transmisioa, erreprodukzio fotomekanikoa edo bestelako erreprodukzioak, eta datuak prozesatzeko instalazioetan biltegiratzea, nahiz eta zati batean baino ez erabil

JARDUEREN AZALPENA

AURKIBIDEA

1. AURKEZPENA	6
2. KONTSEILU AHOLKU-EMAILEA	8
2.1. KONTSEILU AHOLKU-EMAILEA NOLA DAGOEN OSATUTA	8
2.2. KONTSEILUAK EGINDAKO BILERAK	9
3. AHOLKULARITZA EGINKIZUNA	10
3.1. IRIZPENAK	10
3.2. TXOSTENAK	16
3.3. AHOLKULARITZA BILERAK, POSTA ELEKTRONIKOEI ERANTZUTEA ETA TELEFONO BIDEZKO KONTSULTAK NAHIZ TELEMATIKOAK	18
4. KONTROL EGINKIZUNA	19
4.1. ESKUBIDEAK BABESTEKO PROZEDURAK	19
4.2. SALAKETAK	20
4.3. ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ARAU-HAUSTE PROZEDURAK	20
5. HEZKUNTZAKO IKUSKARITZA SEKTORIALA	22
5.1. HEZKUNTZAKO IKUSKARITZA SEKTORIALA ZERTAN DEN	22
5.2. GIZARTE ZERBITZUEN IKUSKARITZA SEKTORIALA	22
6. EUSKADIKO DATUAK BABESTEKO ERREGISTROA	23
6.1. INFORMAZIOAREN JATORRIA	23
6.2. INSKRIPZIO ESKABIDEAK	23
6.3. ERAKUNDE DEKLARATZAILEAK	24
6.4. 2010EAN INSKRIBATUTAKO FITXATEGI AKTIBOAK	25
6.5. INSKRIBATUTAKO FITXATEGIEN BANAKETA, ERAKUNDEEN ARABERA	26
6.6. INSKRIBATUTAKO FITXATEGIEN SEGURTASUN MAILA	26
6.7. WWW.AVPD.ES WEB ORRIAREN ERABILERAREN GAINEKO ESTATISTIKAK	27
7. AZTERKETA SOZIOLOGIKOA. FITXATEGIEN ARDURADUNAK ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAN	29
8. PRIBATUTASUNAREN KONTZEPTUAREN ETA DBEBREN JARDUEREN ZABALKUNDEA	30
8.1. DATU BABESAREN EUROPAKO EGUNA (2010EKO URTARRILAREN 28A)	30
8.2. DATUAK BABESTEKO EUSKAL BULEGOA KOMUNIKABIDEETAN	30
8.2.1. <i>Prentsa idatzia</i>	30
8.2.2. <i>Irratia</i>	33
8.2.3. <i>Telebista</i>	34
8.3. 2010EKO GABONETAKO HAUR PARKEAN PARTE HARTZEA KZGUNEAREKIN BATERA	34
8.4. DATU BABESA ETA ENPRESAK	36
9. ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAN JARDUNBIDE EGOKIAK DATU PERTSONALEN KUDEAKETAREN ESPARRUAN ETA INFORMAZIOAREN KUDEAKETA	38
9.1. PRESTAKUNTZA BIDEOA. DATU-BABESA ADMINISTRAZIOETAN: "DATUAK NIREAK, NEGOZIOA ZUREA?"	38
9.2. HAURRAK SENTSIBILIZATZEKO HIZKUNTZA-PROGRAMA: "REDA ETA NETOREN ABENTURAK: DATU PERTSONALAK ZAINTZEN"	38

9.3	BALIABIDE IRLANDARRA: DATUAK BABESTEKO AGENTZIAK HEZKUNTZA-BALIABIDEAK GARATZEKO BATU DIRA	41
9.4	ALDIZKARI OFIZIALETAN DATU PERTSONALAK TRATATZEKO LAN TALDEA ERATZEA	42
9.5	EAEKO JUSTIZIA AUZITEGI NAGUSIAREN INSTRUKZIOA	44
9.6	DATU-BABESARI BURUZKO HIZTEGI TERMINOLOGIKOAREN ARGITALPENA EUSKARAZ	44
10.	EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAN EGINDAKO PRESTAKUNTZA EKINTZAK	45
10.1	PRESTAKUNTZA EKINTZEN ETA JARDUEREN ZERRENDA	45
11.	BESTE ADMINISTRAZIO, AGENTZIA ETA ERAKUNDE BATZUEKIKO HARREMANAK ETA LANKIDETZA	46
11.1	NAZIOKO FOROETAN PARTE HARTZEA	46
11.2.	NAZIOARTEKO ZENBAIT FOROTAN PARTE HARTZEA	47
11.2.1.	<i>Telekomunikazioetako Datu Babesari buruzko Nazioarteko Lantaldea (IWGDPT - Berlingo Taldea)</i>	47
11.2.2.	<i>Datuak Babesteko Europako Agintaritzen Konferentzia – Pragako Udaberriko Konferentzia</i>	48
11.2.3.	<i>Datuak Babesteko Agintaritzen Nazioarteko Konferentzia - Jerusalemeko Udazkeneko Konferentzia</i>	49
11.3.	LANKIDETZA DATUAK BABESTEKO ESTATUKO BESTE AGENTZIA BATZUEKIN	49
11.3.1.	<i>Koordinazio taldeen funtzionamendua</i>	49
11.3.1.1.	Zuzendarien Taldea	49
11.3.1.2.	Idazkaritzen taldea	50
11.3.1.3.	Lege-aholkularitzak Koordinatzeko Taldea	50
11.3.1.4.	Ikuskaritza Taldea	51
11.3.1.5.	Erregistro eta Teknologian Berrien Taldea	53
11.4	DATUAK BABESTEKO ESPAINIAKO AGENTZIAREN KONTSEILU AHOLKU-EMAILEAN PARTE HARTZEA	53
11.5.	DATU PERTSONALEN BABESAREN ARLOKO HITZALDIETAN, MINTEGIETAN ETA BESTELAKO JARDUERETAN PARTE HARTZEA	54
11.6	ALIANNTZA ESTRATEGIKOAK	55
11.6.1	APEP-Pribatutasuneko Espainiako Elkarte Profesionala (2010eko irailaren 10a)	55
11.6.2	Eusko Jaurlaritza-Gobernuaren Lehendakaritza	55
11.6.3	Herriaren Defentsarako Erakundea (Argentina) (2010eko urriaren 28a)	56
11.6.4.	EIIEO-Euskadiko Informatika Ingeniarien Elkargo Ofiziala	56
12.	BARNE KUDEAKETA	57
12.1	KONPROMISOA BIKAINITASUNAREN ETA ETENGABEKO HOBEKUNTZAREKIN DATUAK BABESTEKO EUSKAL BULEGOA KUDEATZEAN	57
12.1.1	<i>Plangintza</i>	57
12.1.2	<i>Kudeaketa</i>	57
12.1.2.1	Prozesuen Mapa eta DBEBren funtsezko prozesuak dokumentatzea	57
12.1.2.2	Abian jartzea DBEBren intraneta: barne komunikaziorako eta ezagutzaren kudeaketarako tresna	57
12.1.2.3	Kanak Anitzeko Arretarako Sistema (KAS)	59
12.1.2.4	Zerbitzu Karta	59
12.1.3	<i>Ikaskuntza eta Berrikuntza</i>	60
12.1.3.1	Lehengo urtea Q-Epea - Erakunde Publikoen Elkargune Aurreratuaren kide gisa esperientziak partekatzen	60
12.1.3.2	Innobasquerekin lankidetzaren Berrikuntza erdiesteko	60
12.1.3.3	DBEBko pertsonen ikaskuntza, DBEBren kudeaketa hobetzeko	61
12.1.4	<i>Ebaluazioa</i>	62
12.1.4.1	DBEBren kudeaketan zein arlo hobetu zehazten: Bigarren Autoebaluazioa	62
12.2	PERTSONEN KUDEAKETA	62
12.2.1	<i>Laneko Arriskuen Prebentzioko Politika</i>	62
12.2.2.	<i>Laneko arriskuen prebentzioaren arloko 2010eko jardura plana</i>	63
12.2.2.1	Prebentzio plana	63
12.2.2.2	Larrialdietako Plana	63
12.2.2.3	Informazioa eta barne komunikazioa	63
12.2.2.4	Urteko oroitidazkia egitea eta ondorioak	64

12.2.3. Osasunaren zainketaren arloko 2010eko jarduera plana	64
12.2.3.1 Protokoloak ezartzea	64
12.2.3.2 Mediku azterketak	64
12.2.3.3 Urteko oroitidazkia egitea eta ondorioak	64
12.3. ORGANIGRAMA ETA LANGILEEN PLANTILLA	65
12.3.1 Organigrama	65
12.3.2 Langileen plantilla	65
12.3.3 2010eko ekitaldian lanean aritu direna	66
12.3.4. Lanpostuak betetzea	66
12.4. AURREKONTU, KONTABILITATE ETA ONDARE KUDEAKETA	67
12.4.1. 2010eko aurrekontua	67
12.4.2 2010eko Aurrekontu exekuzioa	68
12.4.3 2009ko auditoria	69
12.5. BALIABIDE MATERIALAK	70
12.5.1. Egoitza	70
12.5.2.Beste zenbait kontratu txiki	70
12.5.3 Egitura teknologikoa eta aplikazioak garatzea eta hobetzea	71
12.6 KUDEAKETA IRAUNKORRA ETA INGURUMEN INPAKTUA	71
12.6.1 Birziklatze selektiboa	71
12.6.2. Kudeaketa jasangarria: ingurumen inpaktua	72

1. Aurkezpena

Honako Oroitidazkia gure web orrian ikusgai dagoen 2010eko Jardueren Azalpenaren laburpena izateaz gain, informazioa berreskuratzeko modu aproposa ere izan da, iraganeko gertakariak gogora ekartzeko, eta, bidez batez, horiek atxikitzeko.

Oroitidazkiaren asmoa ez da igarotako esperientziak besterik gabe biltzea; aitzitik, gogoratzeko, antolatzeke, erakusteko eta batez ere ikasteko metodo bat izan nahi du, ikaskuntza xede duen ariketa bat, urteko gertaera gogoangarrienak erakusteko eta gure jardueraren etekinen berri emateko, ziurtasuna eta segurtasun juridikoa eskainiz eta orain arte egindakoaren eta egingo dugunaren gainean gogoeta egiten lagunduz.

Hain zuzen ere, etengabeko berrikuntza teknologikoei azkartu egin dute munduan egoteko dugun modua, pertsonen arteko harremanak ulertzeko era ere aldatu dute, eta, ondorioz, eskubideak erabiltzeko modua ere bai. Gure gizartea beste era bateko mundu batera ari da igarotzen gelditu gabe, eta, horrek gogoeta sakonagoak egitera behartzen gaitu.

Ikusita pribatutasunik gabeko etorkizuna datorkigula, datu pertsonalak babesteko oinarritzko eskubidea indartsu azaleratu da. Teknologia berriek elkarrengana hurbiltzen bagaituzte ere, datu pertsonalen neurrigabeko tratamenduak ere eragin ditzakete, eta horrek aurrez aurre jartzen gaitu zaintzapean dagoen gizarte batekin. Ondorioz, datu-babesaren, adierazpen askatasunaren, gardentasunaren eta segurtasunaren arteko oreka lortzea da kontrol agintaritzen eta DBEBren erronkarik garrantzitsuenetako bat.

DBEBk horrexegatik egin du hain ahalegin handia 2010ean herritarrak eta datu pertsonalak tratatzen dituzten erakundeak elkarrengana hurbil daitezen, hartara, modu proaktiboan hedatzeko datu pertsonalak babesteko oinarritzko eskubidea; DBEBk uste osoa duelako eskubide bat erabili ahal izateko, jakin egin behar dela eskubidea zertan den, eskubidea modu arduratsuan eta jakinda erabili ahal izateak ematen diolako bermea. Helburu horixe izan du 2010ean egindako hedapen lanak eta administrazio publikoetan eta hezkuntza sisteman burututako jardunbide egokiak.

Ondoko beste neurriek ere xede bera izan dute, esate baterako, aldizkari ofizialetan datu pertsonalak modu egokian eta errespetuz tratatzeko lan talde bat sortzea hainbat erakunderen artean, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiarekin elkarlanean aritu izana datu pertsonalak dituzten ebazpen judizialen ediktuek argitaratzeko prozedura bateratu eta finkatzeko, eta jardun prozesaleko betekizunak eta oinarritzko eskubidea batzeko.

Azpiraratzekoak dira Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoetan burututako prestakuntza jarduerak, kontuan izanda administrazio horietako batzuk garrantzi handiko datuak gorde eta tratatzen dituztela, eta askotan bereziki babestutako datuak. Adibidez, osasunari buruzko datuak, gizarte ongizatekoak, ogasunekoak edo segurtasunekoak. Horretarako, funtsezkoa da teknologia berriek datu pertsonalen tratamenduei dakartzkien erronkei etengabe egokituz doan prestakuntza izatea. Beste era batera esanda, autodeterminazio informatiborako eskubidea erakutsi nahi duen tresna baliotsua izatea eta, azken finean, kalitate handiagoko zerbitzu publikoa eskaintzeko aukera izatea.

Zeregin proaktiboarekin batera, Datuak Babesteko Euskal Bulegoak kontrol jarduerak eta kontsulta eta aholkularitza lana ere burutu ditu, arduradun politikoei eta herritarrei zuzenduta.

Kontsulta eta aholkularitza lana asko gehitu da, batez ere osasun datuen tratamenduei buruzko kontsultak eta tokiko administrazioak egindakoak. Horrek argi erakusten du udaletxeetan barruraino sartu dela oinarritzko eskubide honekiko interesa.

Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren beste eginkizun bat da administrazio publikoek egiten dituzten datu pertsonalen tratamenduak Fitxategien Erregistroan deklaratura eta inskribatuta daudela ziurtatzea, horrek bermatzen duelako bete egiten dela informazio pertsonala kontrolatzeko pertsonen eskubidea. Horren ondorioz, 2010eko abenduaren 31n 6.342 fitxategi genituen inskribatuta DBEBren Erregistroan; eta horrek esan nahi du % 14,9 igo dela kopurua. Igoera hori batez ere DBEB, EUDEL eta foru erakundeen arteko lankidetzak eragin du.

Guzti horretaz gain, Datuak Babesteko Euskal Bulegoak datu-babesaren arloko nazioko eta nazioarteko zenbait foro eta ekitalditan ere hartu du parte, batzuetan ezagupenak jasotzeko eta ikasteko, eta besteetan gure esperientzia eta ezagutza besteei eskaintzeko.

Aurten ere, bikaintasunarekiko gure konpromisoa lagungarria izan da plangintza estrategikotik abiatuta ekiteko gure lanari, eta jarraipena egiteko nahiz hobetzeko bitartekoak abian jartzeko, guztia herritarren onurarako. Tresna horietako bat Kanal Anitzeko Arreta Zerbitzua da. Herritarrei eta administrazioei egiten zaien hasierako arreta eta ezagutza kudeatzeko tresna hau gure konpromisoaren adierazgarri da.

Gure misioa kontuan hartuta, esan dezakegu Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zeregina dela Euskadiko herritarrek behar bezala kontrolatuta izatea, haienak izanik, administrazio publikoek tratatzen dituen datuak; eta hori hala izan dadin, ziurtasun osoz esan daiteke funtsezkoa dela pertsonak ondo jabetuta egotea datu pertsonalak babesteko oinarritzko eskubidearen titularrak direla.

Esandako guztia lortu bada, Datuak Babesteko Euskal Bulegoan lan egiten duten pertsonak osatzen duten talde bikainari esker izan da. Emoziotan aberatsa den erakundea izanik eta bertako pertsona bakoitzaren talentua eta sormena ardatz hartuta, datu pertsonalak babesteko oinarritzko eskubidea benetan gauzatu dadin ari da buru belarri lanean.

Iñaki Vicuña de Nicolás

Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zuzendaria

2. Kontseilu aholku-emailea

Kontseilu Aholku-emailea DBEBren gobernu organo bat da, eta bere helburua zuzendariari aholku ematea da, halaxe baitago jasota otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 14. artikuluan.

2.1. Kontseilu aholku-emailea nola dagoen osatuta

2010ean honako hauek osatu zuten Kontseilu Aholku-emailea:

- Juan Luis Mázmela Etxebarria jauna, Eusko Legebiltzarraren ordezkaria izan zen 2010eko maiatzaren 10era arte. Legebiltzarreko Mahaiak izendatu zuen. Egun horretaz geroztik, Montserrat Auzmendi del Solar andrea izan da Legebiltzarraren ordezkaria, Legebiltzarreko Mahaiak 2010eko urriaren 26ko bilkuran izendatu zuenez gero.
- José María Endemaño Arostegui jauna, Erakunde Politikarako eta Toki Administrazioarako zuzendaria Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren ordezkaria izan zen 2010eko abenduaren 21a arte. Gobernu Kontseiluak izendatu zuen.

Gobernu Kontseiluak José Ignacio Pariente de Prada jauna, Administrazio Erregistroen eta Toki Araubidearen zuzendaria, izendatu zuen egun horretatik aurrera ordezkari.

- Edurne Egaña Manterola andrea, Lehendakartzako eta Foru Administrazioiko Departamentuaren foru diputatua Lurralde historikoen ordezkaria izan zen 2009ko martxoaren 31tik 2010eko abuztuaren 31ra arte. Foru Aldundien arteko erabaki bidez izendatu zuten.

Egun horretatik aurrera, José Javier Aguirre Busteros jauna izan zen ordezkaria. Arabako Foru Aldundiak izendatu zuen.

- Ricardo Ituarte Aspiazua jauna, Santurtziko alkatea Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde-eremuko toki-erakundearen ordezkaria izan zen 2007ko urriaren 23az geroztik. EULELek izendatu zuen.
- Eduardo Jacob Taquet jauna, Ingeniaritza Telematikoko irakasle titularra eta Informatikan aditua Euskal Herriko Unibertsitatearen ordezkaria da. Euskal Herriko Unibertsitatearen errektorearen 2004ko azaroaren 29ko Ebazpenaren bidez izendatu zuen.
- Iñaki Esparza Leibar jauna, Zuzenbide Prozesaleko katedraduna eta Oinarritzako Eskubideetan aditua Euskal Herriko Unibertsitatearen ordezkaria da. Euskal Herriko Unibertsitatearen errektorearen 2004ko azaroaren 29ko Ebazpenaren bidez izendatu zuten.

Kontseilu Aholku-emailearen lehendakartzak sistema txandakakoa da, eta bi urtean behin aldatzen da, Kontseilu Aholku-emailearen Antolaketa eta Funtzionamendu Arauetako 4.1 artikulua xedatzen duen hurrenkeran. Apirilera arte, Santurtziko alkate Ricardo Ituarte Aspiazua jauna izan zen lehendakaria; eta gero, Eduardo Jacob Taquet jaunak, Euskal Herriko Unibertsitateko ordezkariak ordeztu zuen.

2.2. Kontseiluak egindako bilerak

Kontseilu Aholku-emaileak ohiko bilera bi egin zituen, bata apirilaren 22an eta bestea azaroaren 11n. Azaroko bilera Ingeniaritza Goi Eskola Teknikoaren Zuzendaritzaren bilera gelan egin zen, Bilboko Urkixo zumarkalean, Batzorde Aholku-emailearen lehendakariak gonbidatuta. 2010eko balantzea egiteko bilera 2011ko urtarrilaren 31n egin zen. Bileren idazkaria Nieves Mtz. de Antoñana andrea, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren idazkari nagusia izan zen..

Bileretan honako gaiak landu zituzten:

2010eko apirilaren 22ko bilera

- Lehendakaria berritzea.
- Datu Babesaren Europako Eguna.
- Konpromisoa kalitatearekin.
- Aliantza Estrategikoak.

2010eko azaroaren 11ko bilera

- Kontseilu Aholku-emaileko zenbait kide berritzea: Legebiltzarraren ordezkaria eta lurralde historikoen ordezkaria.
- Aldizkari ofizialetan datu pertsonalak tratatzeko lan taldea.
- Lanpostuak betetzeko lehiaketaren deialdia.
- Aliantza Estrategikoak.

2011ko urtarrilaren 31ko bilera (2010eko Balantzea)

- Kontseilu Aholku-emailearen kide bat kide berritzea: EAEko Administrazioaren ordezkaria.
- Egoeraren txostena.
 - Kontrol eginkizuna, txostenak eta irizpenak.
 - Fitxategiak deklaratzeko.
- Konpromisoa kalitatearekin.
- Datuak babesteko bulegoen arteko lankidetzak.
- Aliantza Estrategikoak.
 - Hitzarmena APEP–Pribatutasuneko Espainiako Elkarte Profesionalarekin.
 - Hitzarmena Lehendakariatzako Prospekzio Soziologikoen Kabinetearekin.
 - Esparru hitzarmena Buenos Airesko Hiri Autonomoko Herriaren Defentsarako Erakundearekin.
 - Hitzarmena Informatika Ingeniarien Elkargoarekin.

3. Aholkularitza eginkizuna

Datuak Babesteko Euskal Bulegoak aholkularitza eginkizuna betetzeko, administrazio publikoek, erakundeek eta korporazioek edo pertsona fisiko nahiz juridikoek Bulegoaren ezarpen esparruan dauden datu pertsonalen tratamenduei buruz egiten dizkioten galderei erantzun behar die.

Era berean, otsailaren 25eko 2/2004 Legea garatzen duten xedapen orokorretako egitasmoei buruzko txostenak egin behar ditu.

3.1. Irizpenak

Egiten dizkiguten kontsultei idatziz erantzuten diegu, hala egin behar dela xedatzen baitu 2/2004 Legearen 17 n) artikulua. Bestalde, kontsultei erantzutea aholkularitza eginkizun bat denez, irizpen deitzen diegu. Administrazioei eta pertsona pribatuei, fisikoei nahiz juridikoei, eskaintzen dizkiegu irizpenak, baldin eta datu pertsonalen babesaren arloko alderdi zehatzei buruzko zalantzak badituzte.

Hona hemen aholkularitza eginkizunaren ezaugarriak:

- Irizpen-eskaerek datu pertsonalen babesarekin lotutako gaietarako buruzkoak izan behar dute, eta, bereziki, 2/2004 legearen 2.1 artikuluko erakundeek edo administrazio publikoek sortu edo kudeatutako fitxategiei buruzkoak.
- Eta planteatzen den gaiak zehatza izan behar du. Horrek esan nahi du honakoak deskribatu beharko direla gutxienez: zalantza sortzen duen portaera eta/edo xedapen jakin bat kasu zehatz batean ezartzean sortzen den zalantza.

2010ean 2009an egindako bi kontsulta erantzun genituen, eta hogeita hamazazpi kontsulta berri jaso genituen. Horietako hogeita zortziri irizpenen bidez erantzun genien, eta gainontzeko bederatziei 2011an erantzungo zaie.

2010ean egin zizkiguten kontsultak ikusita, Bulegoak argi ikusten du badaudela zenbait gai kontsulta-egileentzat bereziki kezkarriak direnak, eta ia beti dute zer ikusia oinarritzko eskubidearen funtsezko edukiari zuzenean eragiten dioten portaerekin.

Hori dela eta, ahalegindu gara gai horien kasuan jarraitu beharreko lerro nagusiak finkatzen, eta ahalik eta zorrotzen eta segurtasun juridiko handienarekin erantzuten bai herritarrei bai administrazioei.

Egin zizkiguten kontsulta gehienek galdetzen dute ea zilegi den beste administrazio bati edo administrazio beraren baitan datu pertsonalak lagatzea edo komunikatzea.

Bulegoak jaulkitako irizpenak zenbait multzotan sailka daitezke, hobeto ikusteko zein alderdi buruzkoa izan diren kontsulta gehienak edo zein gairi buruz eskatzen den batez ere Bulegoaren iritzia: datu-lagatzea, datu pertsonalaren kontzeptua, kontrol politikoa, erregistroak eta fitxategiak atzitzeko eskubidea, segurtasun-neurriak, biztanleen udal errolda, DBLOren printzipioak, datuen argitalpena, gizarte zerbitzuak eta bideo zaintza.

Irizpenak Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren www.avpd.es web orrian daude argitaratuta, eta aurtengo jardueren azalpenean irizpenen edukiaren laburpena argitaratzen dugu..

DATU PERTSONALAREN KONTZEPTUA

Pertsona juridikoei buruzko datuak ez dira datu pertsonalak; beraz, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko Lege Organikoak ez ditu babesten, ezta legea garatzen duen araudiak ere.

CN09-060

FITXATEGIAK

Izaera juridiko pribatua duten erakundeek sortzen dituzten fitxategiak fitxategi pribatutzat joko dira, baldin eta ez badute ahal publikorik esleituta.

CN10-008

ERROLDA

Adin txikikoen datuak lagatzea ikastetxe publikoei

Ez dago datu pertsonalak babesteari buruzko araudiarekin kontrajarrita bi urte betetzen dituzten haurren zerrenda ematea ikastetxeei, helbide eta guzti, gero ikastetxeek zerrenda hori matrikulazioari buruzko informazioa bidaltzeko erabil dezaten.

Ikastetxeentzat nahikoa bada eta ikastetxeen helbururako ere egokia bada, helbideen zerrenda bat bidaliko zaie, hara bidal dezaten informazioa. Horrela jokatz gero, ez dira lotu beharko helbideen zerrenda pertsonen izen-abizenekin. Ahal bada, aukera hau hautatuko da.

CN10-002

Errolda historikoaren datuak atzitzea

Denbora aldi bati buruzko udal errolda kolektibo baten egiaztagiria egitean gertatzen den datu pertsonalen lagapenak, egiaztagiria eskatzen duen pertsona ez den beste batzuei buruzko datuekin egiten bada, ez du Toki Araubidearen Oinarriei buruzko Legearen 16.3 artikulua babesik izango. Babesa izatekotan, Euskal Herriko Dokumentazio-ondareari buruzko Legearena edo lege hori garatzen duen azaroaren 21eko 232/2000 Dekretuarena izango da, baina beti ere azken arau horren 19.1 artikulua eskatzen dituen betekizunak betetzen badira.

CN10-014

KONTROL POLITIKOA

Zinegotzi batek datuak atzitzea

Zinegotzi eskatzaileari datu pertsonalak komunikatu ahal zaizkio, kontrol eta fiskalizazio eginkizunak nahiz legez dituzten bestelakoak gauzatzeko eskubideaz baliatu dadin, hala xedatzen baitute Toki Araubidearen Oinarriak ezartzen dituen Legearen 77. artikulua eta Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 11.2 a) artikulua.

Zinegotziei bakar-bakarrik komunikatu ahal izango zaizkie, esleituta dituzten helburu jakinetarako egokiak, beharrezkoak eta neurrikoak diren datu pertsonalak.

Datu horiek zeintzuk diren zehaztea eta eskaeraren betekizunak betetzen diren ala ez erabakitzea Udaleko dena delako organoaren zeregina da, eta ez beste inorena.

Datuen komunikazioa egiten bada, komunikazioa egiteko, ezinbestean hartu beharko dira kontuan udalak segurtasunaren arloan ezarrita dauzkan protokoloak (DBLOren 9. eta 20. artikulua, Datu pertsonalak dituzten fitxategi automatizatuen segurtasun-neurriak ezartzeko Erregelamendua onartzen duen abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuarekin bat).

Edozelan ere, komunikatzen diren datu pertsonalen lagapen-hartzaileak edo lagapen-hartzaileek DBLOren 10. artikuluan xedatutako sekretu gorde beharra bete beharko dute.

CN10-001

BIDEO ZAINZA

Udalak udalaren kirol esparruan pertsonen irudiak hartzea bideokameren bidez, gero udalaren web orrian jartzeko, eta segurtasuna ez den helburu baterako, ez dator bat datu pertsonalak babesteko oinarritzko eskubidearen arloko araudiarekin.

CN10-009

ERREGISTRO ETA ARTXIBOETARA HELTZeko ESKUBIDEA

Aldi baterako lan poltsa bateko gainontzeko parte-hartzaileen datuak atzitzea

Aldi baterako lan poltsa batean dagoen pertsonak zerrendako gainontzeko pertsonen identitateari, zerrendan duten tokiari eta egiaztatuta duten hizkuntza eskakizunari buruzko datuak (baldin eta hizkuntza eskakizunaren datua garrantzitsua bada lan poltsaren kudeaketarako) ikusten baditu, horrek ez du datu pertsonalei buruzko araudia urratzen.

CN10-031

Norgehiagoka prozesu batean gainontzeko parte-hartzaileen merezimenduak atzitzea

Datuak Babesteko Euskal Bulegoak ezin du esan hautaketa-prozesu bateko parte-hartzaile batek eskubiderik duen ala ez prozesuan parte hartu duten beste parte-hartzaile batzuek aurkeztutako dokumentuak atzitzeko. Hori erabakitzeko, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/19992 Legea eta datuen kalitatearen printzipioa (DBLOren 4.1 artikulua) hartu beharko dira kontuan.

CN10-027

DATU-LAGATZEA

Datu akademikoak lagatzea ikasleen gurasoei eta legezko ordezkari

Adin txikikoen kasuan, gurasoek edo tutoreek institutuari seme-alaben kalifikazio akademikoak eskatzeko eskubidea izango dute. Adinez nagusiak badira, seme-alaben adostasuna beharko da.

Adin txikiko seme-alaben ordezkaritza guraso-agintea duten gurasoen dute legez. Seme-alabak adinez nagusiak badira, borondatezko ordezkartzaren arauak bete beharko dira. Irizpen honetan aipatu ditugu zein diren arauak.

Institutuak neurriak hartu beharko ditu —teknikoak, antolaketakoak edo bietakoak— irakasleek ikasleen datu pertsonalak atzitzen dituztenean, atzipenek kalitatearen printzipioa bete dezaten, eta irakasleek haien eginkizunetarako behar dituzten datuak baino atzitu ez ditzaten.

CN10-006

Elkargokideen datuak lagatzea elkargoei

Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuak osasun arloko berariazko profesionalen elkargoei datuak lagatzea zilegi da, hori egiteko lege-gaikuntza egon badagoelako, elkargo bateko kide izatea obligazioa denean. Baina, bakar-bakarrik komunikatu ahal izango dira eskaeraren oinarrian dagoen legezko helburua betetzeko egokiak, garrantzitsuak eta neurrikoak diren datuak.

Elkargo bateko kide izatea nahitaezkoa ez den kasuetan edo Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuan elkargoko jarduerekin zer ikusirik ez duten eginkizunak egiten ari diren pertsonen datuak eskatzen badira, datu-lagatzeak ez du lege-gaikuntzarik.

CN10-024

GIZARTE ZERBITZUAK

Administrazio publikoen arteko datu-lagatzeak

DBLOren 11. artikulua arautzen du izaera orokorrarekin zer den datu-lagatzea, datuen titularraren adostasuna nahitaezkoa dela ere xedatzen du eta salbuespenak finkatzen ditu.

DBLOren 21. artikulua arautzen ditu administrazio publikoen arteko datu-lagatzeak, eta artikulua dioenez ez da adostasunik behar eskumen berbere edo gai berberei buruzko eskumenez baliatzeko bada.

"Administrazio publikoek haien eskumenez baliatzeko bildutako edo landutako datu pertsonalak ezin izango zaizkie komunikatu beste administrazio publiko batzuei bestelako eskumenez edo gai desberdinei buruzko eskumenez baliatzeko bada.

Salbuespen bat dago eta da komunikazioa helburu historiko, estatistiko edo zientifikoetarako egitea”.

Goiko artikuluko horretatik, datuak adostasunik gabe laga daitezkeela, ondoriozta dezakegu. DBLOren idazkeran ezezko esaldia erabili da hori adierazteko, baina DBLO garatzen duen Erregelamendua onartzen duen abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuaren 10.4 c) artikuluko idazkera argiagoa da. Bertan dio datu pertsonalak lagatzea, interesdunaren adostasunik gabe, zilegi izango dela administrazio publikoen arteko lagapena denean, eta

“c) Eskumen berdin-berdinak gauzatzeko komunikatzen direnean datuak, edo gai berei buruzkoak direnean”.

Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Eusko Legebiltzarraren Legearen 27.2 artikulua Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren antolamendua eta egitura arautzen ditu eta honakoa xedatzen du:

“Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema osatzen duten zerbitzuak honela egituraturik egongo dira:

Lehen mailako arretako gizarte-zerbitzuak, 22.1 artikuluan araututa daudenak, bide emango diete erabiltzaileei gizarte-zerbitzuen sistema osora iristeko, eta autonomiaren, gizarteratzearen eta larrialdien edo babesgabetasunaren inguruko egoerei erantzuneko diete, eta batez ere arrisku-egoeren prebentzioari erreparatuko diete.

Udalen gizarte-zerbitzuei dagokie zerbitzu horiek eskaintzea eta betetzea, Eusko Jaurlaritzaren esku egongo den telelaguntza zerbitzua izan ezik, III. tituluko I. kapitulan ezarritako eskumen-banaketarekin bat etorrira.

Bigarren mailako arretako gizarte-zerbitzuak, 22.2 artikuluan araututa daudenak. Bazterketaren, mendetasunaren edo babesgabetasunaren inguruko egoerei erantzuna emango diete. Foru-aldundien gizarte-zerbitzuei dagokie zerbitzu horiek eskaintzea eta betetzea, eta hala badagokie, Autonomia Erkidegoaren eremuko gizarte-zerbitzuei, III. tituluko I. kapitulan ezarritako eskumen-banaketarekin bat etorrira.”

Artikuluak irakurri eta gero atera dugun ondorioa da gai horren gaineko eskumena hainbat euskal administrazio publikok partekatzen dutela, eta, hain zuzen ere, horrexegatik da beharrezkoa DBLOren 21.1 artikuluan eta Legea garatzen duen Erregelamenduari 10. artikuluan jasotako salbuespena, esparru honetan egiten diren datu-lagatzeak egiteko.

Baina, informazioa partekatzeko aukera izateak bat etorri behar du abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 43. artikuluan jasotako koordinazio betebeharrarekin.

“Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioak elkarrekiko lankidetzak eta koordinazio-betebeharraren arabera jardungo dira sistemak eraginkortasunez eta eragimenez funtziona dezala bermatzeko.”

Nahiz eta horrelako kasuetan informazioa partekatzeko legezko gaikuntza bat egon, aipatu behar da badagoela kontuan hartu beharreko beste alderdi bat, datu-babesaren arloko oinarritzeko printzipioa dena, eta printzipio hori datuen kalitatearen printzipioa da. DBLOren 4. artikulua finkatzen du. Hona hemen artikulua lehenengo idatz-zatiak xedatzen duena:

“Datu pertsonalak jaso eta tratatu ahal izateko ezinbesteko baldintza da datu horiek egokiak, bereizleak eta neurrikoak izatea, datu bilketaren eremuarekiko eta datu bilketaren helburu zehatz, esplizitu eta legitimoekiko”.

Printzipio horren arabera, datu egokiak, garrantzitsuak eta neurrikoak baino ezin izango dira laga.

Gainera, adin txikikoa edo bere ordezkariari lagapen horien berri eman beharko zaizkie, DBLOren 5.4 artikuluan xedatutakoaren arabera:

“Izaera pertsonaleko datuak interesdunarengandik jaso ez direnean, fitxategiaren arduradunak edo horren ordezkariak esanbidez informazio zehatza eta zalantzarik gabea eman beharko dio interesdunari, datuak erregistratu eta hurrengo hiru hilabeteetan, tratamenduaren edukia, datuen jatorria eta artikulua honen 1. idatz-zatiko a), d) eta e) letretan jasotakoaren inguruan, salbu eta interesdunari aurretiaz eman zaionean horren gaineko informazioa”.

Titularra ez den beste iturri batzuetatik jasotako datuak badira, informatzeko betebeharrak salbuespenak izango ditu baldin eta helburu estatistikoak edo ikerketa historiko edo zientifikoetarako badira edo neurritz kanpoko ahaleginak egin behar badira edo erregistroa edo hirugarren bati egin beharreko komunikazioa legeren batek berariaz agintzen badu (DBLOren 5.5 artikulua).

CN10-016

DATU PERTSONALEN ARGITALPENA ALDIZKARI OFIZIALETAN

Egintza administratiboak jakinaraztea

(...) Auziari ikuspegi orokor batetik begiratuta, esan daiteke Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 58. eta hurrengo artikuluek nahikoa babes ematen dietela administrazioei, administrazioek haien eskumenak gauzatzeko dagozkien eskumenez baliatzean (DBLOren 6.2 artikulua) aldizkari ofizialetako argitarapenen bidez (DBLOren 11.2 a) artikulua) egiten dituzten datu pertsonalen komunikazioei. Baina, hala ere, argitaratzeko agintzen duen organoari gomendatzen zaio, kasu bakoitza (edo kasuen multzo bakoitza) kontuan hartuta, erabaki dezala zein datu pertsonal argitaratu behar diren gutxienez, eta argitarapenaren bidez lortu nahi den helburu bera lortzeko behar diren datuak baino ez daitezen argitaratu. Halaber, balioztatu egin beharko da ea komenigarria den 30/1992 Legearen 61. artikulua ezartzea, nabarmena denean oinarritzko eskubidea urratu egingo dela, batez ere argitaratu beharreko datuen izaerari erreparatuz gero, edo bestelako arrazoi garrantzitsuren bat egonez gero.

Berretsi egin behar dugu, baina, ezin dela erantzun bakarra eman izaera orokorrarekin kasu guztietarako, eta kasu bakoitzean auzia banan-banan ebatzi behar dela, aurreko irizpide horiek aplikatuta. Horrela jotuz, datuak babesteko oinarritzko eskubidearen, argitaratutakoaren eraginkortasunaren eta gainontzeko oinarritzko eskubideen arteko oreka lortu nahi da, argitaratzen diren egintzen lehendabiziko hartzaileen (interesdunen) eskubidea babestuta egon dadin batez ere.

Azkenik, beste bi alderdi gogorarazi behar ditugu, konponbide hobeia lortzen lagunduko dutelakoan.

Alde batetik, gogorarazi nahi dugu garrantzi handiko kontua dela argitarapena egiteko agintzen duten organoek eta aldizkariak arduratzen den organoak antolaketako neurri egokiak hartzea, datuen titularrei aukera emateko atzitzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta aurka egiteko eskubideez baliatzeko; ezen neurri horiek bizkorrak eta eraginkorrak badira, datu pertsonalak aldizkari ofizialetan argitaratzeak ekar dezakeen kaltea ere gutxitu egin baitaiteke, batez ere ezerezteko eta aurka egiteko eskubideei dagokienez.

Beraz, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 59.5 artikulua xedatutako betez argitaratu diren datuak ezerezteko eskatzen badu norbaitek, eta argitarapenaren helburua beteta badago, Bulegoaren iritziz, datu horiek ezereztu ahal izango dira.

Beste era batera esanda, argitaratutako egintza edo ebazpenak bere eginbeharrekoa bete duenean, eta, beraz, egintza edo ebazpenaren aurka egiteko aukera guztiak xahutu dituenean, zentzugabea litzateke datu pertsonala mantentzea.

Beste hainbeste esan daiteke Lege bereko 59.6 eta 60.1 artikuluetan aurreikusitakoaz. Azkenik, aipatu behar da beste zenbaitetan, kasu zailagoak direnean, egokiagoa dela aurka egiteko eskubideaz baliatzea, eta askotan emaitza herritarrak lortu nahi duenaren antzekoa da.

Hau da, datuak ezereztea ezinezkoa den kasuak daudenean eta herritarraren datu pertsonalak argitaratuta egon behar badute ezinbestean, ahalegina egin beharko da datuak argitaratuta egoteak herritarraren intimitateari ahalik eta kalterik txikiena egiteko.

Beste alde batetik, esan daiteke --nahiz eta horren ardurarik ez izan organo kontsulta-egileak--, kasu zailagoak direnean eragina gutxitzeko neurri praktiko bat izan daitekeela aldizkarian argitaratutako datuen bilaketan trabak jartzea, horretarako, administrazioak berak jarritako bitartekoak erabiliz.

Gauza bat da egintza edo xedapen batzuk, eraginkorrak izan daitezen, aldizkari ofizialetan argitaratzeko legezko obligazioa egotea, eta beste kontu bat, guztiz desberdina da aldizkarietan argitaratutako datuak bilatu eta berreskuratzea ahalbideratzen duten aldizkari horien datu-baseak sortzea: Bulegoak uste du azken hori egiteko obligaziorik ez dagoela, eta, beraz, argitaratutako edukia oinarritzko eskubidera hobeto egokitu beharko dela, horretarako, egokia izango delarik datu horien bilaketak egitea eragozten duten bitarteko teknikoak inplementatzea, batez ere erabakitzea zailago den kasuetan edo oinarritzko eskubidean eragina handia den kasuetan.

CN10-018

3.2. Txostenak

Atal honetan sartzen ditugu honako hauek:

- Azaroaren 25eko 2/2004 Legea garatzeko xedapen orokorretako egitasmoen buruzko txostenak egitea, 17 h) artikulua xedatzen duenaren arabera.

- Nahitaez erantzun beharreko estatistikak finkatzen dituzten lege-xedapenei buruzko proiektuen gaineko txostenak egitea, 2/2004 Legearen 17. 1.l) artikulua eta DBEBren Estatutua onartzen duen urriaren 10eko 309/2005 Dekretuaren 5 a) artikulua xedatzen dutenaren arabera.
- Bestelako lege-xedapenei eta hitzarmenei buruzko txostenak egitea, ebazteko ea datu pertsonalei buruzko araudiarekin bat datozen.
- DBEBren Lege Aholkularitzaren txostenak egitea.

Azken urtean xedapen orokorreari buruzko eta hitzarmenei buruzko irizpenen kopuruak gora egin du. Goranzko joera aurreko memoriako datuetan ere antzematen zen, nahiz eta lanik handiena datu pertsonalen tratamendu zehatzei buruzko kontsultek eragin diguten.

2010ean honako arau-proiektuen gaineko txostenak egin genituen:

- Euskal Autonomia Erkidegoko Unibertsitateen, Zentroen eta Unibertsitate-Irakaskuntzen Erregistroa sortzen duen Dekretuaren proiektua.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Minbiziaren gaineko Informazio Sistemari buruzko Dekretuaren Proiektua.
- Profesional Sanitarioen gaineko Informazio Sistemari buruzko Dekretuaren Proiektua.

Honako hauen gaineko txostenak ere egin ziren:

- Euskal Autonomia Erkidegoko Unibertsitateen, Zentroen eta Unibertsitate-Irakaskuntzen Erregistroa sortzen duen Dekretuaren proiektua.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Minbiziaren gaineko Informazio Sistemari buruzko Dekretuaren Proiektua.
- Profesional Sanitarioen gaineko Informazio Sistemari buruzko Dekretuaren Proiektua.
- Era berean, honako hauen gaineko txostenak ere egin ziren:
- Lehendakaritza Ministerioaren eta DBEBren arteko Lankidetzaren Hitzarmenaren Proiektua, administrazio elektronikoari buruzko zerbitzuak emateko elkarri.
- Zerga Administrazioaren Estatuko Agentziaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko Gobernuaren arteko Hitzarmena, zerga arlokoa ez den informazioaz hornitzeko.
- Prestazio sozial ekonomikoetan iruzurraren aurka egiteko eta kontrolatzeko, erakundearen arteko lankidetzaren eta koordinazioaren esparruan Arabako Foru Aldundiaren eta Vitoria-Gasteizko Udalaren arteko lankidetzaren hitzarmena.
- DBEB-APEP lankidetzaren hitzarmenak.
- DBEBren eta Jaurlaritzaren Lehendakaritzaren arteko lankidetzaren hitzarmenak.
- DBEBren eta Euskadiko Informatika Ingeniarien Elkargo Ofizialaren arteko lankidetzarako esparru hitzarmena.

3.3. Aholkularitza bilerak, posta elektronikoei erantzutea eta telefono bidezko kontsultak nahiz telematikoak

Gure jarduerari eman nahi izan diogun izaera proaktiboa kontuan hartuta, hainbat bilera egin ditugu Euskal Autonomia Erkidegoko zenbait administrazioekin, eta bilera horietan hainbat gairi buruzko aholkularitza eman diegu, esate baterako, obligazio formalak betetzeari buruzkoak eta administrazio horien eskumen esparruko programa berriei ekiteko —datu babesaren arloko araudia betez— zer-nolako jarduerak burutu behar dituzten jakiteko eta abar.

4. Kontrol eginkizuna

Datuak Babesteko Euskal Bulegoa kontrol eginkizunaz baliatzen da arau-haustek deklaratzeko; tratamenduen arduradunei eta tratamendu-eragileei eskatzen die indarrean dagoen araudira egokitzeko datu-tratamenduak, eta, hala badagokio, zehatzeko ahalaz baliatzen da edo diziplina-prozedurak hasteko proposatzen du.

Era berean, datu-babesaren arloko araudia bete dadin zaintzen du eta araudia ezartzen dela kontrolatzen du, batez ere informaziorako eskubideari dagokionez eta datuak atzitu, zuzendu, ezereztu eta aurka egiteko eskubideei dagokionez (AZETA eskubideak ere esaten zaie).

4.1. Eskubideak babesteko prozedurak

Prozedura hauek 2/2004 Legearen 9.2 artikuluan jasotako babes eskubidearen ondorio dira. Babes espedienteek esan nahi dute erreklamazioa egiten dutenei lehendik ukatu egin dietela, osorik edo zati batean, datuak atzitzeko, zuzentzeko, ezerezteko edo aurka egiteko eskubidea.

2010ean DBEBk hogeita bi babes espediente ebatzi zituen (horietako 5 2009an hasitakoak izan dira). Horietako hamazazpirekin gaiaren muinari buruzko ebazpenak egin dira, bi ez dira onartu, hiru Datuak Babesteko Espainiako Agentziara (AEPD) bidali dira eta lau erreklamazio daude ebatzi gabe, oraindik izapidetze fasean daudelako.

Guztira, hamaika babes-eskaera onartu dira, horietatik bederatzi arrazoi formalengatik.

Aipatzekoa da babes-eske asko arrazoi formalengatik izan direla, egiazta baitaiteke, Bulegoari babesa eskatu ondoren eta babes-prozedurak iraun duen bitartean, administrazio askok bete egin dutela eskubidea (nahiz eta berandu bete, bete egin dute; horregatik, babes-eskea formalki onartu da).

Hona hemen aurten datuak atzitzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta aurka egiteko eskubidea behar bezala bermatu ez duten euskal administrazio publikoen zerrenda:

- Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuak bi aldiz aitortu du, baina berandu, historia klinikoa atzitzeko eskubidea, eta beste behin historia kliniko batean jasota zeunden izenari eta sexuari buruzko datuak zuzentzeko eskubidea.
- Getxoko Udala: behin ez zuen onartu datuak atzitzeko eskubidea, eta beste behin berandu onartu zuen.
- Bilbao-Bizkaia Ur Partzuergoa: berandu batean onartu zuen datu pertsonalak zuzentzeko eskubidea.
- Bizkaiko Foru Aldundia: BAO n argitaraturako datu pertsonal batzuk beranduegi ezeztatu zituen.
- EAEko administrazio orokorreko Herrizaingo Saila: EHA n argitaratutako datu pertsonal batzuk beranduegi ezeztatu zituen.

- EAEko Administrazio Orokorreko Enplegu eta Gizarte Gaiak Saileko Enplegu eta Prestakuntza Zuzendaritza: zuzendaritza horren erantzukizunpeko fitxategietan dauden datuak atzitzeko eskubidea zati batean ezesteagatik.
- Bilboko Udala: atzitzeko eskubidea berandu onartzeagatik.
- Güeñesko Udala: web orrian datu pertsonalak berandu ezerezteagatik.

Jardueren Azalpen honetan ematen ditugun datuak kontuan hartuta, esan dezakegu Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren babes eginkizunak gora egin duela. Hain zuzen ere, nabaritzen da herritarrek gero eta hobeto dakitela noiz, nola eta zein baldintzekin erabil ditzaketen administrazio publikoen aurrean atzitzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta aurka egiteko eskubideak. Era berean, administrazioek ere gero eta kultura handiagoa erakusten dute herritarrei eskubide horiez baliatzen uzteko orduan.

Berriz ere, atzipen eskubideaz baliatzeko eskubidea izan da babes prozedura gehien ekarri dituen. Baina, aurreko urteekin alderatuta, babes eskaeren kopurua igo egin dela antzeman da, gehienbat osasun esparrutik kanpoko datu atzipen eskubidea ukatzeagatik (trafikoko kamerek jasotako irudiak, politika aktiboen eskatzaileen datuak, eta abar).

Era berean, datuak zuzentzeko egindako eskaeren gaineko babes eskaerak gehitu egin dira. Administrazioen web orrietan eta aldizkari ofizialetan argitaratzen dituzten datu pertsonalak ezerezteko eskaerak ere gero eta sarriago egiten dituzte; eta DBEBren ustez, kezkatzeko kontua denez, gomendio bat egin du aldizkari ofizialetan egiten diren datu pertsonalen argitalpenei buruz.

4.2. Salaketak

Pertsona fisikoek edo juridikoek aurkeztutako erreklamazioak dira, datu pertsonalen babesaren arloko araudia urratuz egiten diren jarduerak direla-eta. Beraz, Legean zehaztutako arau-hausteak dira.

Salatzaileen iritziz, gehien kezkatzen dituen kontua da ez dakitela haien datu pertsonalak fitxategi batean jasoko dituztenik eta ez dakitela datu horiek laga edo erabil ditzaketenik haien adostasunik gabe edo lege babesik gabe.

2010en Datuak Babesteko Euskal Bulegoak berrogeita hamahiru salaketa jaso zituen, eta horietatik hamar hogeitabi ebatzi gabe daude 2011n. Era berean, 2009ko hamar salaketa ebatzi ditu aurten. 2010ean ebatzitako salaketetatik hemeretzi artxibatu egin dira, hamabirekin arau-hauste prozedurak ireki dira.

4.3. Administrazio publikoen arau-hauste prozedurak

Otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 24. artikuluan aurreikusitako prozedurak dira horiek, eta legearen aurkako jarduerarik egon den ala ez egiaztatzea dute helburu.

2010ean hamabi arau-hauste prozedura ireki ditugu, eta horietatik lau bukatuta daude. Beste zortziak instrukzio fasean daude. Horietaz gain, 2010ean aurreko urtean hasitako bost arau-hauste prozedura ere ebatzi dira.

Izapidetu eta ebatzi diren espedienteetatik bost toki administrazioen jarduerengatik izan dira, bat foru aldundi batekoa eta hiru Osakidetza-Euskal osasun Sistemakoak.

Ebatzitako bederatzi espedienteetatik lautan jarduerak artxibatu egin dira (bat foru aldundi batekoa zen, beste bat toki administrazio batekoa eta bi Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzukoak) eta bost espedientetan arau-hauste deklarazioa egin da.

EAEko ondoko euskal administrazioetan datu pertsonalak babesteko esparruko arau-hausteren bat deklaratu da 2010ean:

- Donostiako Udalari arau-hauste larri bat deklaratu zaio datu tratamendu bat burutzeagatik datuen helburuaren printzipioa urratuz (DBLOren 4.2 artikulua).
- Santurtziko Udalari arau-hauste larri bat deklaratu zaio datu tratamendu bat burutzeagatik datuen proportzionaltasun printzipioa urratuz (DBLOren 4.1 artikulua).
- Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuari arau-hauste larri bat deklaratu zaio segurtasun-neurri egokiak ez izateagatik (DBLOren 9. artikulua).
- Vitoria-Gasteizko Udalari arau-hauste larri bat deklaratu zaio sekretu gorde beharra ez betetzeagatik (DBLOren 10. artikulua).
- Amorebieta-Etxanoko Udalari arau-hauste arin bat deklaratu zaio sekretu gorde beharra urratzeagatik (DBLOren 10. artikulua).

Arau-hauste bat dagoela dioten bost deklarazio egin dira. Deklarazio bi arau-hauste arinak egiteagatik (sekretu gorde beharra urratzeagatik) izan dira eta bi udaletan izan dira. Beste hirurak arau-hauste larriak egiteagatik izan dira (bi datuen kalitatearen printzipioa urratzeagatik izan dira eta bi udaletan jarri dira; eta azkena Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuari deklaratu zaio segurtasun-neurririk ez izateagatik).

5. Hezkuntzako ikuskaritza sektoriala

5.1. Hezkuntzako ikuskaritza sektoriala zertan den

2010ean Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak bukatutzat jo zuen DBEBk gomendatu zion ekintza plana. Ekintza planak hainbat gomendio ematen zituen, lehentasunen arabera sailkatuta (berehalakoak eta epe laburrean, epe ertainean eta epe luzean egitekoak). Hona hemen gauzatu dituzten jarduerak:

- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren barne prozedurari buruzko jarraibidearen gaineko irizpena, datu pertsonaldun fitxategiak sortzeko, aldatzeko edo ezabatzeko.
- Ikasleak Kudeatzeko Fitxategia sortzeari buruzko eta ikastetxe guztietarako fitxategi bakar bat sortzeko aukerari buruzko irizpena.
- Ikastetxeetan bideozaintzari buruzko fitxategia edo fitxategiak sortzeari buruzko irizpena.
- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren datu pertsonaldun zenbait fitxategi arautzen dituen Aginduaren gaineko irizpena.

Azkenik, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 2010eko urriaren 4ko Aginduaren bidez sailaren datu pertsonaldun fitxategiak arautu ziren, eta 138 fitxategi berri sortu ziren, 9 aldatu ziren eta lehendik zeuden 24 fitxategi ezabatu ziren.

5.2. Gizarte zerbitzuen ikuskaritza sektoriala

Datuak Babesteko Euskal Bulegoak beste ikuskapen sektorial bat du aurreikusita gizarte zerbitzuen esparruan egiteko. Hori dela eta, 2010ean hasi zen ikuskapena egiteko aurrelanak egiten, "Atariko txostena" eginez eta txostenean sektoreari buruz jendearen eskurako iturrietatik jasotako informazioa bilduz:

- Gizarte zerbitzuetan eragina duten arau-xedapenak
- Ukitutako erakundeei buruzko informazio deskriptiboa eta antolakuntzakoa
- Sektorearen jarduerari buruzko datu estatistikoak
- Datuak Babesteko Erregistroan deklaraturako fitxategiak

6. Euskadiko Datuak Babesteko Erregistroa

6.1. Informazioaren jatorria

Datu Babesaren Erregistroaren 2010eko jardura DBEBren Zifrei buruzko Eranskinean dago jasota. Bertan ikus daiteke fitxategien deklarazioen bilakaera nolakoa izan den. Horretarako, hainbat taula jarri dira honako datuekin: Erregistroaren bilakaera historikoaren datuak, fitxategien mugimenduei buruzko datuak, erakunde deklaratzaleei buruzkoak eta deklaratu diren fitxategiei buruzkoak; azken horiek beste aldagai hauekin gurutzatuta: lurraldeari, administrazio mailari eta segurtasun mailari buruzko datuekin.


Datu guzti horiek Fitxategien Erregistroaren datu-basearen azterketan dute jatorria. Erregistroan DBEBn deklaraturako inskripzio guztiak daude, Erregistroa sortu zenetik gaur arte. Erregistroa 2004an sortu zen. Aurreko urteei buruzko datuak ere aipatzen dira, eta Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren Erregistro Orokorretik hartutako datuak dira. Kalkulu guztietarako hartu den erreferentziako data izan da fitxategiak Datuak Babesteko Erregistroan “inskribatzeko, aldatzeko eta/edo ezabatzeak” data.

Horretaz gain, www.avpd.es web gunea izandako bisiten berri ere ematen da, web gunea sortu zenetik —2005ean sortu zen— gaur arte. Horretarako informazioa ateratzeko, www.euskadi.net erakunde atariko zerbitzarietan biltzen diren trafiko-datuen azterketa erabili da.

6.2. Inskripzio eskabideak


2010ean 1.655 mugimendu egon dira guztira Fitxategien Erregistroan (sortzeko, aldatzeko edo ezabatzeak inskripzioak).

1.655 mugimendu horien % 63 fitxategi berriak sortu direlako egin diren inskripzioak izan dira (1.040 fitxategi berri). Aldaketak, ordea, 397 izan dira (% 24) eta 218 ezabatze egon dira (%13). Horren arabera, saldo garbia da (inskripzioak ken ezabatzeak) 862 fitxategi berri gehitu direla Datuak Babesteko Erregistroan.




Eskuineko grafikoan sortze-inskripzioen urtez urteko bilakaera ikus daiteke eta urteroko mugimenduetatik ateratzen den fitxategien saldo garbia (sortze-inskripzioak ken ezabatze-inskripzioak).

Guztira dauden mugimenduen artean fitxategien ezabatzeak gutxi badira ere, esan behar da ezabatzeek ez dutela esan nahi ezabatutako fitxategiko datu pertsonalen tratamenduak bertan behera geratzen direnik. Gehienetan gertatzen




dena da fitxategia eraldatu egiten dela eta aldi berean sortzen den beste fitxategi berri batean txeratzen dela. .

2010eko mugimendu gehienak toki administrazioen (udalak eta horien menpeko erakundeak) eskaerak izan dira. Guztira 1.384 mugimendu (% 84), eta ikusi da finkatu egin dela 2007an hasi zen gorako joera DBEBk eta EUDELe, bereziki, toki administrazioari zuzenduta sustatu zituen kontzientzia jardueren ondorioz.




Batez beste 150 inskripzio izapidetu ziren hileko (kontuan hartuta, balioko 11 hil daudela), nahiz eta hilero kopuru desberdinak izan, grafikoan ikusten denez.



6.3. Erakunde deklaratzailerak


Datuak Babesteko Erregistroan 1.158 fitxategi arduradun agertzen dira. Horietako gehienak (985, % 85) administrazio organoak dira, % 12 erakunde autonomiadunak dira (135) eta % 3 "bestelako izaera juridikodunak" (37).

Fitxategi bakoitzaren deklarazioan zehatz agertzen da jasota zein den fitxategien arduraduna (zuzendaritza orokorren edo administrazio bestelako egitura zehatz baten arabera), baina komenigarritzat jo da horiek multzokatzea, erakunde deklaratzailer nagusia kontuan hartuta, hau da, barruko egitura organikoa zehatza alde batera utzita. Beraz, erakundeak sailkatzeko, IFZ hartu da kontuan, desberdina dutelako, Eusko Jaurlaritzaren kasuan izan ezik, kasu horretan sail bakoitza erakunde deklaratzailer nagusitza jo delako.



Gauzak horrela, 381 erakunde deklaratzailer nagusi daude. 2009ko datuekin alderatuta, 34 erakunde deklaratzailer nagusi gehiago daude. Horietatik 19 Bizkaiko Lurralde Historikokoak dira, 9 Arabakoak eta 6 Gipuzkoakoak.


Udalei dagokienez, esan behar dugu 2010ean ez dela jaso deklarazio batik Datuak Babesteko Erregistroan eta oraindik 30 udal daudela fitxategi bat bera ere erregularizatu gabe. 2009an 51 zeuden. Beraz, horrek esan nahi du % 41,2 gutxiago daudela orain.



Portzentajeak ikusita, esan daiteke Gipuzkoan jaitsi egin dela fitxategi bat bera ere deklaratu gabe duten udalen kopurua, eta % 75 gutxitu da (2009an 8 udal zeuden eta orain 2 baino ez). Balio absolutuak kontua hartuta, jaitsiera handiena Bizkain izan da, 19 udal geratzen baitira erregularizatu gabe, eta 2009an 29 ziren (% 34 jaitsi da). Azkenik, Araban 9 udal baino ez daude erregularizatu gabe (iaz baino 5 gutxiago).

6.4.2010ean inskribatutako fitxategi aktiboak

Euskadiko Datuak Babesteko Erregistroan 6.342 fitxategi daude inskribatuta eta aktiboan 2010ean. Hurrengo grafikoan ikus daiteke bakoitzaren "antzinakotasuna" edo fitxategi horien banaketa denboran zehar, hau da, fitxategi bakoitza zein urtetan deklaratu zen ikus daiteke grafikoan. Grafikoaren arabera, aktibo dauden fitxategien % 82 2004. urteaz geroztik deklaratu dituztela esan daiteke.



6.5. Inskribatutako fitxategien banaketa, erakundeen arabera

2010ean udalak izan dira denetara mugimendu gehien egin dituzten erakundeak. Guztira 721 fitxategi gehiago inskribatu dituzte. Beraz, 2009arekin alderatuta, % 18,1 igo da portzentajea. Lurralde historikoen arabera sailkatuz gero, honako igoerak egon dira orotara eta batez beste: Gipuzkoan 233 fitxategi berri gehiago (% 14,3), Bizkaian 423 fitxategi gehiago (% 20,9) eta Araban 65 fitxategi berri (% 20,2).

Bestalde, "udalez gaineko erakundeak" (batez ere mankomunitateak eta partzuergoak dira) atalean gertatu da fitxategi kopuruaren igoerarik handiena, portzentajeen arabera, 56 fitxategi gehiago baitaude, hau da, kopurua % 32,4 igo baita, eta orain guztira 229 fitxategi daude inskribatuta.

Eusko Jaurlaritzako sailek eta erakunde autonomiadunek 876 fitxategi dituzten inskribatuta, eta horrek esan nahi du 2009an baino 5 fitxategi inskribatu dituztela (igoera % 0,6koa izan da).

Foru administrazioen atalean 17 fitxategi gehiago daude, hau da, igo egin da kopurua (% 5,4) eta orain guztira 332 fitxategi daude inskribatuta.

Azkenik, esan behar da "bestelako erakundeak" atalean 148 fitxategi zeudela eta orain 164 daudela; beraz, % 10,8 igo da portzentajea.


6.6. Inskribatutako fitxategien segurtasun maila

Kontuan hartzen badugu inskribatutako fitxategi kopurua eta horietatik zenbatek duten esleitura segurtasun maila, nabarmen gertatzen da zein den zenbait erakundek datu babesari ematen dioten garrantzia.

Izan ere, 2010ean 515 fitxategi zeunden segurtasun mailarik esleitu gabe, eta horrek esna nahi du fitxategi horiek ez direla eguneratu lehen aldiz deklaratu zituztenetik, 2001a baino lehen. Hala ere, horrelako fitxategiak %23,4 gutxitu dira aurreko urtearekin alderatuz (157 fitxategi gutxiago). 2009an 672 fitxategi zeuden segurtasun mailarik esleitu gabe.

Grafikoan ikus daiteke zein den inskribatuta dauden fitxategien segurtasun maila eta noiz inskribatu zen lehen aldiz fitxategia.


Grafikoan argi ikusten da lehen aipatu dugun bilakaera; izan ere, 2001a baino lehen deklaratu ziren fitxategien artetik, gero eta gutxiago daude segurtasun maila deklaratu gabe, eta hori gertatu da fitxategi horiek aldatzeko jakinarazpenak jaso direlako Erregistroan.




6.7. www.avpd.es web orriaren erabileraren gaineko estatistikak

Ondoko grafikoetan ikus daiteke DBEBren www.avpd.es web-orrian urtez urte egon diren mugimenduak, sortu zenetik (2005eko abuztuan sortu zen). Neurketaren datuak www.euskadi.net erakunde atariko zerbitzarietan biltzen diren trafiko-datuen azterketatik atera dira.

Web orriaren jardueraren inguruan ondoko bi grafiko hauek ditugu¹. Batean, web orriak izan dituen bisitak adierazten dira hiru hileka, eta bisita horiek zenbatzeko, bisita desberdinen batuketa egin da. Bestean, web orriko guneek izandako bisitak adierazten dira hiru hileka, eta horretarako, zerbitzariak bidalitako orriak hartu dira kontuan.



¹ www.euskadi.net web orriak bisitak neurtzeko modu bat du, eta hortik eratorritako zifrak ezin dira erabili benetako neurri moduan, baina erabil daitezke denbora zehar egon den bilakaera aztertu eta alderatzeko.



2010eko urtarrilean “Reda eta Netoren Abenturak: zure datu pertsonalak zaintzen” marrazki bizidunak argitaratu ziren, ikastetxeetan eta familian erabiltzeko, eta 9-11 urte bitarteko adin txikikoei zuzenduta. Materialaren bidez adin txikikoei adierazten zaie ez uzteko euren buruzko edo inguruko buruzko informazio pertsonalik Interneten edo sare sozialetan. Horretaz gain, “Datuak nireak, negozioa zurea?” bideoa ere editatu zen. Erakundeei eta bertako lankideei esku artean dituzten datuak behar bezala erabiltzeko gonbitea egiten die bideoa.

7. Azterketa soziologikoa. Fitxategien arduradunak administrazio publikoetan

Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren eginkizunen artean azpimarratzekoa da datu-babesari buruzko legedia betetzen dela zaintzea eta administrazio orokorrak, lurralde historikoetako foru organoek, tokiko administrazioek eta gainontzeko administrazio autonomikoek sortu edo kudeatzen dituzten fitxategiak gainbegiratzea da.

Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren Erregistroan dauden datuak ikusita, Euskadin titulartasun publikoko 6.178 fitxategi daude inskribatuta, bakoitza berari dagokion segurtasun-neurriarekin, eta 1.128 fitxategi arduradun.

Kontuan hartzen badugu fitxategi bat finkatutako zenbait irizpideren bidez atzitu daitekeen datu pertsonalen multzo antolatu oro dela, alde batera utzita nola sortu den, nola dagoen antolatuta edo zein den atzipena, fitxategiek duten garrantzia begien bistakoa da. Bestalde, fitxategi bakoitzak arduradun bat izan behar du eta berak erabaki behar du zein den fitxategiaren helburua, edukia eta erabilera, eta tratamenduak. Beraz, eginkizun hau indartu nahi bada eta erantzun egokia eman nahi bada, oso garrantzitsua da DBEBren eta fitxategien arduradunen arteko komunikazio kanalak finkatzea.

Datuak Babesteko Euskal Bulegoak eta Eusko Jaurlaritzako Lehendakaritzaren Prospekzio Soziologikoen Kabineteak [inkesta](#) egin diete fitxategien arduradunak diren organoetako pertsona titularrei. Inkestaren bidez jakin nahi dute ea titulartasun publikoko fitxategien arduradunek zein pertzepzio duten datuak babesteko oinarritzko eskubideari buruz, hura arautzen duten legediari buruz, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari buruz eta fitxategien arduradunen erantzukizunei eta horiek dituzten mekanismoei buruz.

Inkestaren landa lana 2010eko azaroaren eta 2011ko urtarrilaren artean egin zen eta 358 organismori eta 1.128 fitxategi arduraduni egin zitzaion. % 50,6k erantzun dute.

Euskal administrazioetan egindako inkestaren emaitzak balio dute lehenago, Prospekzio Kabinetearekin lankidetzan, herritarrei egindako beste iritzi azterketa batzuk osatzeko. Inkesta horien bitartez, gero eta hobeto ezagutzen ditugu datuak babesteko oinarritzko eskubideari buruzko pertzepzioak eta jarrerak, eta, horri esker, eskubidearen zabalkundea egitea errazagoa da eta eskubidearen defenda egiteko abiapuntua ere hobea da, errealitatea hobeto ezagutzen dugulako.

Azterketaren emaitzak 2011koak izanik, urte horretako Oroitidazkian jasoko ditugu.

8. Pribatutasunaren kontzeptuaren eta DBEBren jardueren zabalkundea

8.1. Datu Babesaren Europako Eguna (2010eko urtarrilaren 28a)

2007az geroztik, urtero ospatzen da Datu Babesaren Europako Eguna. Europako Kontseiluak, Europako Batzordeak eta Europako Batasuna osatzen duten herrialdeetako datu babesaren arloko agintaritzak guztiek sustatzen dute egun hau, datuak babesteko oinarritzko eskubidea zabaltzeko eta babesteko asmoarekin.

Horregatik, DBEBk ikus entzunezko prestakuntza baliabide bi aurkeztu zituen egun horretan, bata adin txikikoei zuzenduta, eta, bestea, administrazioei eta erakundeei zuzenduta orokorrean. Bi baliabideen helburua da, pertsonak haien datu pertsonalak erabiltzen dituztenean, pertsonen bizitza pribaturako eskubidea errespetatzen dela sustatzea.

“Reda eta Netoren Abenturak” adin txikikoei zuzendutako marrazki bizidunak dira, oso erakargarriak. Lau animazio dira, flash formatuan, eta 9-11 urteko adin txikikoei zuzenduta jarraibideak ematen dituzte, haurrei azalduz nola babes dezaketen Interneten eurei buruzko informazio pribatua eta pertsonala eta ingurukoena. Materiala irakasleek eta familiek erabiltzeko modukoa da, eta hezkuntzako materia osagarri gisa eta sentsibilizazio material gisa erabilgarria.

Bestalde, “Datuak nireak, negozioa zurea?” izeneko bideoa ere argitaratu genuen. Bideoaren bidez erakundeei eta langileei dei egiten zaie eskuartean dituzten datuak behar bezala erabil ditzaten, eta horrela lortu komunikazioaren gizartearen teknologia berriek --kudeaketa azkarrago eta era eraginkorragoan egitea ahalbideratuz--, pertsonen bizitza pribaturako eskubidea errespetatu dezaten.

Baliabideen aurkezpena DBEBren egoitzan egin zen eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailarekin eta Justizia eta Herri Administrazio Sailarekin batera egin zen.

8.2. Datuak Babesteko Euskal Bulegoa komunikabideetan

Datuak Babesteko Euskal Bulegoak zabalkunde lan handia egin du komunikabideetan, herritarren artean datu pertsonalak babesteko oinarritzko eskubidea ezagutzera emateko. Komunikabideetan gehien agertu diren alderdiak honakoak izan dira: sare sozialak, adin txikikoen nabigazio segurua Interneten eta Euskal Autonomia Erkidegoko aldizkari ofizialetan datuak babestea. Eta horren adierazgarri dira ondoko zerrendan ikus daitezkeen elkarriketak eta artikuluak:

8.2.1. Prentsa idatzia

DATA	EGUNKARIA	TITULARRA
2010-1-28	Noticias de Álava eta Noticias de Gipuzkoa	<u>Sare sozialen oinarriak</u> (Iñaki Vicuña de Nicolás jauna, DBEBren zuzendaria)

Pribatutasunaren kontzeptuaren eta DBEBren jardueren zabalkundea

2010-1-28	El Correo	<u>Pribatutasuna eta informazioa, eskubide bateraezinak</u>
2010-1-29	Deia. Noticias de Bizkaia	<u>“Jendea bere burua nabarmendu nahian ibiltzen da etorkizuneko arazoez arduratu gabe”</u> (Iñaki Vicuña de Nicolás jauna, DBEBren zuzendaria)
2010-1-29	Noticias de Gipuzkoa	<u>Jazarpen digitala nerabeekin grinatzen da</u>
2010-1-29	Noticias de Álava	<u>“Reality show” batean bizi gara” eta jendea bere burua nabarmendu nahian dabil, etorkizunean sor daitezkeen arazoak kontuan hartu gabe”</u> .
2010-01-29	Deia	<u>Adin txikikoen aztarna arriskutsua Interneten</u>
2010-01-29	El País	<u>Pribatutasuna haurrentzat</u>
2010-01-29	Noticias de Gipuzkoa	<u>Jazarpen digitala nerabeekin grinatzen da</u>
2010-01-29	Adn.es	<u>Datuak Babesteko Agentziak legezko baliabideak eskatu ditu segurtasunaren arloan</u> (Nieves Martínez de Antoñana andrea, DBEBren idazkari nagusia)
2010-02-00	Agenda Digital, nº 14	<u>Helduen eta adin txikikoen pribatutasuna babestea Interneten</u> (Iñaki Vicuña de Nicolás jauna, DBEBren zuzendaria)
2010-05-17	Diario Vasco	<u>Datuak Babesteko Euskal Bulegoak dio arriskutsua dela hurrek Internet erabiltzea</u>
2010-05-17	Elcorreo.com	<u>Datuak Babesteko Euskal Bulegoak gurasoak estutu nahi ditu hurrekin batera ibil daitezen Interneten</u>
2010-05-17	Eleconomista.es	<u>Datuak Babesteko Euskal Bulegoak gurasoak estutu nahi ditu hurrekin batera ibil daitezen Interneten</u>
2010-05-17	Europapress	<u>Datuak Babesteko Euskal Bulegoak gurasoak estutu nahi ditu hurrekin batera ibil daitezen Interneten</u>
2010-05-17	Lainformacion.com	<u>Datuak Babesteko Euskal Bulegoak gurasoak estutu nahi ditu hurrekin batera ibil daitezen Interneten</u>
2010-05-17	20minutos.es	<u>Datuak Babesteko Euskal Bulegoak gurasoak estutu nahi ditu hurrekin batera ibil daitezen Interneten</u>
2010-05-18	Noticias de Álava	<u>Gurasoei gomendatu diete seme-alabekin batera erabiltzeko sarea</u>
2010-07-05	El Mundo	<u>EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak erabaki du nola argitaratu ebazpenak intimitatea errespetatuz</u>

Pribatutasunaren kontzeptuaren eta DBEBren jardueren zabalkundea

2010-07-05	ABC	<i>Ediktuetatik beharrezkoak ez diren datuak kentzeko instrukzioa adostu dute</i>
2010-07-06	El País	<i>Ediktuen argitalpenetan "beharrezkoak" diren datu pertsonalak baino ez dira argitaratuko</i>
2010-07-06	Noticias de Gipuzkoa	<i>Ediktuetatik datu pertsonalak kentzeko jarraibide bat adostu dute</i>
2010-07-06	El Correo digital	<i>Datu pertsonalen argitalpenari buruzko araudia batzeko aurrerapenak</i>
2010-07-07	Adn.es	<i>Ediktuetatik beharrezkoak ez diren datu pertsonalak kentzeko jarraibide bat adostu dute</i>
2010-08-06	EITB.com	<i>Erne zenbait mehatxuzko zenbait kanpaina direla eta</i>
2010-08-06	ABC	<i>Datuak Babesteko Euskal Bulegoak komertzioetan egiten ari diren kanpaina "nahasgarri" baten gainean ohartarazi du</i>
2010-08-06	Deia	<i>Datuak Babesteko Euskal Bulegoak marketin kanpaina "oldarkor eta mehatxatzaile" baten gainean ohartarazi du</i>
2010-08-07	Deia	<i>Datuak Babesteko Euskal Bulegoak zenbait erakunderen jarduerak salatu ditu bidegabekoak izateagatik</i>
2010-08-07	Noticias de Álava	<i>Datuak Babesteko Euskal Bulegoak kanpaina "nahasgarri" baten gainean ohartarazi du</i>
2010-08-07	Berria	<i>Datuen babeserako «zalantzazko» kanpaina baten berri eman dute</i>
2010-08-07	Noticias de Gipuzkoa	<i>de Iruzurra enpresariei</i>
2010-08-08	Noticias de Álava	<i>Datuak Babesteko Euskal Bulegoak kanpaina "nahasgarri" baten gainean ohartarazi du</i>
2010-09-10	Adn.es	<i>Kanpaina batek datu pertsonalak babesteko eskubidea dibulгатuko du</i>
2010-09-12	Noticias de Álava	<i>Datu-babesari buruzko akordio bat Gasteizen</i>
2010-10-13	El País	<i>Hezkuntzaren erronkak aro digitalean</i> (Datuak babesteko agentzietako zuzendariak)
2010-09-14	APEP.es	<i>DBEBk eta pribatutasuneko profesionalek datu-babeserako eskubideak dibulгатuko dituzte</i>

Pribatutasunaren kontzeptuaren eta DBEBren jardueren zabalkundea

2010-10-22	El País	<u>Aditu talde batek sare sozialekin lotutako arriskuak aztertu ditu Gasteizen: 14 urtetik gorako gazteen % 45 baino gehiago ibili ohi da Interneten</u>
2010-10-22	Noticias de Álava	<u>Aditu talde batek sare sozialekin lotutako arriskuak aztertu ditu Gasteizen</u>

8.2.2. Irratia

DATA	IRRATIA	TITULARRA
2010-01-28	COPE Gipuzkoa	Datu Babesaren Europako Eguna
2010-01-28	Punto Radio Bilbao	(Iñaki Vicuña de Nicolás jauna, DBEBren zuzendaria)
2010-01-28	Euskadi Irratia	Datu Babesaren Europako Eguna
2010-01-28	Radio Euskadi	(Iñaki Vicuña de Nicolás jauna, DBEBren zuzendaria)
2010-02-02	Radio Vitoria (Plaza Nueva)	Datu Babesaren Europako Eguna (Iñaki Vicuña de Nicolás jauna, DBEBren zuzendaria)
2010-02-02	Onda Cero Radio Gipuzkoa	Datu Babesaren Europako Eguna (Iñaki Vicuña de Nicolás jauna, DBEBren zuzendaria)
2010-03-30	Radio- Cadena Ser	Sare sozialei buruzko elkarriketa
2010-04-15	Radio Vitoria	(Iñaki Vicuña de Nicolás jauna, DBEBren zuzendaria)
2010-05-18	Radio Intereconomía	Datu-babesa eta kontsumitzaileen eskubideak
2010-05-18	Onda Vasca	(Iñaki Vicuña de Nicolás jauna, DBEBren zuzendaria)
2010-05-18	Radio Vitoria	Adin txikikoen arriskuak Interneten
2010-06-03	Onda Vasca	(Eduren Barañano Etxebarria andrea, DBEBko Prestakuntza, Informazio eta Dokumentazio teknikaria)
2010-07-22	Radio Vitoria (Noticias)	Internet Eskolaren astea (Amurrio) eta sare sozialak

Pribatutasunaren kontzeptuaren eta DBEBren jardueren zabalkundea

2010-07-22	Radio Vitoria	(Eduren Barañano Etxebarria andrea, DBEBko Prestakuntza, Informazio eta Dokumentazio teknikaria)
2010-09-10		
2010-09-13	Onda Vasca (Euskadi Hoy)	Internet Eguna
2010-10-07	Cadena Ser	(Iñaki Vicuña de Nicolás jauna, DBEBren zuzendaria)
2010-11-13	Cadena Ser	Internet Eguna
2010-11-30	Cadena Ser	(Iñaki Vicuña de Nicolás jauna, DBEBren zuzendaria)

8.2.3. Telebista






DATA	TELEBISTA	TITULARRA
2010-01-28	ETB2 Teleberri	Teleberri. Datu Babesaren Europako Eguna. Kanpainaren aurkezpena
2010-01-28	TVE (Telenorte)	(Iñaki Vicuña de Nicolás jauna, DBEBren zuzendaria)
2010-1-28	Telebista	Datu Babesaren Europako Eguna
2010-02-09	ETB2 Teleberri	(Iñaki Vicuña de Nicolás jauna, DBEBren zuzendaria)
2010-02-09	ETB1	Datu Babesaren Europako Eguna
2010-12-22	ETB2 (Forum)	(Iñaki Vicuña de Nicolás jauna, DBEBren zuzendaria)


8.3.2010eko Gabonetako Haur Parkean parte hartzea KZgunearekin batera

Gazteen artean ezagutzera emateko datuak babestea zein garrantzitsua den eta zenbateraino eragina duen norberak egin dezakeen ahaleginak norbere datuak babesteko orduan, BECen egin den aurtengo Gabonetako Haur Parkearen edizioak (2010-2011) KZgunea-Interneteko Prestakuntza eta Sarbiderako Zentroen Euskal Sarearekin lankidetzan, aisialdiko gune bat antolatu dugu, nabigazio seguruak dituen abantailak erakusteko bertan parte hartzen duten gazteei. Inklusio digitalerako plataforma honen bitartez, lortu dugu 2.000 neska-mutilengana heltzea, gure web gunea ezagutu dezaten, eta Reda eta Netoren

(www.KontuzDatos.info) animazioak ikusi ostean, bizitza pribatua –norberarena nahiz besteena— babestu beharraz eta nola babestu jabetu daitezzen eta horren gainean hausnar dezaten. Kontua da gazteek ikastea pribatutasuna garrantzitsua dela eta haien informazioa pertsonala kontrolatzean jarrera aktiboa eta arduratsua hartzen jakitea.

Lankidetzak honi esker, parte hartzaileen iritzia jakin dugu, modu anonimoan bada ere. Guztira 2095 parte hartzaile izan dira. Hona hemen galdera:





8.4. Datu babesa eta enpresak

Urteko lehenengo seihilekoan herritarrak atenditzeko zerbitzuan ikusi zen merkataritza eta zerbitzu esparruko partikularrak kezkatuta zeudela zenbait erakundek egindako mehatxuzko eskaintza nahasgarriak zirela eta. Gainera, eskaintzen asmoa datuak babesteko araudia betetzea omen zen. Horrek sortu zuen kezka ikusita, beste gai batzuei erantzunaz batera, abuztuaren 6an informazio-ohar bat atera zen honako edukiarekin:

INFORMAZIO OHARRA

"Datuak Babesteko Euskal Bulegoa gero eta kexa gehiago jasotzen ari da zenbait erakunde egiten ari diren kanpainak direla eta. Kanpainak nahasgarriak dira eta merkataritza sektoreari eskatzen diote --batez ere enpresa txikiei-- euren zerbitzuak kontratatzeke, "nahitaez egin beharrezkoak" omen diren prestakuntza ikastaroak egiteko eta Datu Pertsonalak Babesteari buruzko Legea betetzearen gainean "aholkularitza" emateko, eta, bereziki, datu pertsonalen fitxategiak Datuak Babesteko Erregistroan inskribatzeko".

Eskaera egiteko modua guztiz nahasgarria da, badirudielako datuak babesteko agintaritzak enpresetan agertzen ari garela.

Horren aurrean, Datuak Babesteko Euskal Bulegoak argi utzi nahi du kontrol agintaritzok ez dugula horrelako eskaerarik egiten, eta gezurtatu egin nahi du, lageak betetzeko, datu-babesari buruzko ikastaroak egitea nahitaezkoa denik.

Horregatik guztiagatik, DBEBk argitu egin nahi du, zenbait enpresak, mehatxuzko marketing nahasgarriarekin sortu duten endreduak kezka eta egonezina ekarri dituela. Era berean, DBEBk datuak babesteko oinarritzko eskubidearen zabalkundea egin nahi du, enpresei adierazteko datu-babesa enpresen segurtasunerako berme eta aukera bat dela, eta legea betetzea erraza dela, eta doakoa, enpresentzat.

Zorionez, jarduera desitxuratu horrek ez du zer ikusirik esparru honetako beste profesional eta enpresa batzuen jarduera egokiekin; izan ere, azken horiek lagundu

egiten baitiote datuak babesteko oinarritzko eskubidearen zabalkundeari eta defentsari.

Zalantzarik izanez gero, Datuak Babesteko Espainiako Agentziara jo dezakezue, sektore pribatuaren gaineko eskumena berak duelako, edo, nahiz izanez gero, Datuak Babesteko Euskal Bulegoarekin jar zaitezkeite harremanetan helbide elektronikoaren edo web orriaren bidez.”

9. Administrazio publikoetan jardunbide egokiak datu pertsonalen kudeaketaren esparruan eta informazioaren kudeaketa

9.1. Prestakuntza bideoa. Datu-babesa administrazioetan: “Datuak nireak, negozioa zurea?”

Bideo hau Irlandako *Data Protectionn Commissioner* erakundeak editatutako bideo baten egokitza pen da, eta bere helburua da erakunde publiko eta pribatuentzat lagungarria izatea datu-babesaren arloko araudia ezagutzeko eta ulertzeko, eta jardunbide egokiak sustatzeko.

Administrazioek herritarren datu pertsonalak eduki eta gordetzen dituzte zerbitzuak emateko. Hori dela eta, bideoak datu-babesaren arloko hiru printzipio lantzen ditu, datu-tratamenduak behar bezalakoak izan daitezen:

- 1. Informazioa legearen arabera eta leial jokatzuz biltzea eta prozesatzea, aurretik informazioa eman ez eta adostasuna eskatuz.
- 2. Informazioa, eskatu zenean zeuden helburu esplizitu eta legezkoetarako baino ez gordetzea.
- 3. Informazioa, bildu zenean zeuden helburuekin bateragarria den eran bakarrik erabili eta jakinaraztea.

Bideoaz gain, "Bideoa ikusteko gida" bat ere argitaratu da, eta bertan langileei datu pertsonalak era egokian tratatu behar direla azaltzeaz gain, datu-tratamenduetatik erator daitezkeen erantzukizunez pentsarazi nahi die eta jardunbide hobeen gaineko eztabaida sortarazi langileen artean.

Kontuan izanda esparru publikoan bertako langileak direla datu pertsonalak babesteko eragileak, Datuak Babesteko Euskal Bulegoa eta Eusko Jaurlaritzako Funtzio Publikoko Sailburuordetza elkarrekin lanean ari dira langileak sentsibilizatzeko eta prestatzeko programa batean. Lankidetzaz horren emaitza da bideo honen egokitza pen da eta datu-babesaren esparruko prestakuntza tresna izatea du helburu, langile guztiek erabiltzeko moduan.

Bideoa otsailaren 28an aurkeztu zen, Datu Babesaren Europako Egunean, eta interesa duen orok eskura dezake [Bulegoaren web orrian](#).

9.2. Haurrak sentsibilizatzeko hizkuntza-programa: “Reda eta Netoren Abenturak: datu pertsonalak zaintzen”

2009an eta 2010ean, Datuak Babesteko Euskal Bulegoak, ikusita premiazkoa zela adin hurrei azaltzea norberari buruzko informazioa zein baliotsua den eta zein arriskutsua izan daitekeen informazio hori Interneten egotea, sentsibilizaziorako hainbat material argitaratzea erabaki zuen. Horretarako, [PantallasAmigas](#) ekimenaren laguntza eskatu zuen, esperientzia handia zuelako heziketa esparruan nabigazio seguruaren arloan.

Prestakuntza baliabide honek ikus entzunezko hainbat animazio eta irakasleentzako gida didaktiko bat eskaintzen ditu. Guztiak daude www.kontuzdatos.info ikusgai web orrian. Bideoen azken xedea da haurrak euren datu pertsonalak eta besteenak duten balioaz

jabetzea eta informazio pertsonala modu aktiboan eta etenik gabe kontrolatzeko gaitasuna lantzea. Gainera, animazioez gain, on line edo off line egiteko bestelako jarduerak ere eskaintzen dira, bilaketak egiteko eta esperimintatzeko, familian nahiz eskola giroan egitekoak.

Segidan, prestakuntza-baliabidearen fitxa teknikoa atxikitzen dugu, baliabidea erabiltzeko jarraibide gisa.

REDA ETA NETO: DATU PERTSONALAK ZAINTZEN Pribatutasuneko prestakuntza-baliabideen fitxa www.kontuzdatos.info	
1. Identifikazio datuak	Izenburua: "Reda eta Neto: datu pertsonalak zaintzen". 9 - 11 urte bitarteko eskola umeei zuzendutako hezkuntza baliabidea, pribatutasunari eta datu pertsonalei buruzkoa. Urtea: 2010eko urtarrilaren 28a Antolatzailea: Datuak Babesteko Euskal Bulegoa (DBEB, www.avpd.es), PantallasAmigas (www.PantallasAmigas.net) ekimenaren laguntzarekin eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren aholkularitzarekin.
2. Proiektuaren izaera	Ikus entzunezko zenbait animazio dira, flash formatuan daude; eta irakasleei zuzendutako gida didaktiko bat ere badute, irakasleentzat lagungarria saioak prestatzeko, ikaskuntza-jarduera ugarirekin. - Hezkuntza-materiala hezkuntza kontuetarako bereiziki egindako web honetan dago: www.kontuzdatos.info. Bertan azaltzen da nola jokatu behar den norberaren nahiz besteen bizitza pribatua babesteko, datu pertsonalak daudenean tartean, eta gazteei, nerabeei eta eskola-komunitateari zuzenduta daude. Web orrian beste proiektu batzuk ere eskura daitezke, hala nola: "Kontua: zeuk erabaki datua!" (15-17 urte) eta "Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak Erabiltzeko Eskuliburu Praktikoak" gazteentzat (9-11; 12-14; 15-17 urte).
3. Helburuak	Baliabide honen azken helburuak honakoak dira: Neska-mutilek jabetzea haien nahiz besteen datu pertsonalek duten balioaz, batez ere bitarteko digitaletan erabiltzen direnean. Ematen dituzten datuen bidez identifikatu egin ahal dituztelako, eta, datu horien bidez eurei buruzko "irudi" bat ere transmititzen dutelako; eta gerta daitekeelako hirugarren batzuk neska-mutilen gainean eragina izan dezaketen erabakiak

	hartzea. Neska-mutilek jarrera kontzientea eta aktiboa izan dezaten lortzea, haien nahiz besteen informazioa kontrolatzeko orduan. Helburua ez da ume txikiek datu pertsonalak babesteko adina gaitasun bereganatzea eta ezagutza besterik gabe pilatzea. Helburua beste bat da: jarrera primarioak ikastea, hau da, datuek bizitza pribatuan duten balioaz jabetzea eta informazio pertsonala kontrolatzeko orduan arduratsu eta modu aktiboan jokatu behar dutela.
4. Hartzaileak	Internetekin eta bestelako IKTekin lehengo harremana duten 9–11 urte bitarteko neska-mutilak. Eskola testuinguruan Lehen Hezkuntzako 4., 5. eta 6. mailetan erabiltzeko gomendatzen da. Familian erabiliz gero, familia hezkuntza-eragilea izanik, adin txikikoekin batera egiteko moduko zenbait jarduera ere badaude.
5. Pribatutasuneko edukiak	Animazio guztiek dute oinarrian fustezko ideia bera, hau da, norberari buruzko informazioa kontrolatzea eta babestea garrantzitsua dela, eta besteena ere bai. ANIMAZIOAK: 4 marrazki bizidun dira eta bakoitzaren iraupena ia minutukoa da. Marrazki bizidunetako protagonistak Reda eta Neto dira (gaztelaniazko red eta ingelesezko baliokidea den net hitzetatik abiatuta sortutako izenak), eta lau abenturetan agertzen dira. Abenturetan honakoak irudikatzen dira modu sinbolikoak: 1. Datu pertsonal asko dituzu eta zure irudia ere garrantzitsua da. 2. Zure datu pertsonalak altxorra dira, babes itzazu. 3. Eskubidea duzu zure datu pertsonal guztiak ez emateko. 4. Besteen datu pertsonalak ez dira zureak, baina zureak balira bezala babestu behar dituzu. ARIKETEN GIDALIBURUA ANIMAZIOAK IKUSTEKO. Animazioak ikusi eta gero egiteko hainbat gai proposatzen dira, batzuk taldean eztabaidatzeko, eta beste jarduera batzuk linean (<i>on line</i>) edo lineaz kanpo (<i>off line</i>) egiteko, eta benetako testuinguruan esperimendatzeko abenturek iradokitzen dizuten ideia batzuk ere bai. Gainera, egin beharreko ariketak eta familia uztartzen dira; izan ere, helburuetako bat baita familiari konturaztea baduela hezkuntza-eginkizunik informazioaren eta komunikazioaren

	teknologien erabileran (IKT), eta eginkizun edo rol hori bakar-bakarrik bete daitekeela teknologia horiek seme-alabekin batera erabiliz. WEB ORRIA. Hezkuntza komunitateak materiala erraz eskura dezan, pribatutasunari eta datu-babesari buruzko berariazko web batean jarri da edonoren eskura: www.kontuzdatos.info. Gelatik kanpo ere kontsultatzeko modukoa da. .
6. Umeek eginbeharreko jarduerak	Animazioak ikustea. Animazioak ikustea jarduera hartzailea da, baina jarduera aktibo batekin segitzen du, istorioetako mezuen edukia taldean landuz. Gida didaktikoko jarduerak: • <i>On line</i> bidezko jarduerak eta taldean egiteko esperimentaziozkoak (web orriak eta sare sozialak haurrentzako eta abar). • <i>Off line</i> bidezko jarduerak, jolas izaerakoak, datu pertsonalak erabiltzeari buruzkoak. • Hausnarketarako eta eztabaidarako jarduerak, talde egituratuan egiteko. • Familiar egiteko jarduerak, on line bidezko esperimentaziorako. • Jarduerak familiar, off line bidezko hausnarketarako.
7. Ikaskuntzaren testuingurua	Hezkuntza formala: ikastetxeetako ohiko jardueren baitan egiteko (tutoretzak eta abar). Ikasle talde batek eta irakasle batek hartuko dute parte. Hezkuntza familiar: Seme-alabekin linean (<i>on line</i>) edo lineaz kanpoko (<i>off line</i>) jardueretan parte hartuz, familia konturatu behar da eragin handia duela IKTen erabileraren arloko heziketan.

9.3 Baliabide irlandarra: datuak babesteko agentziak hezkuntza-baliabideak garatzeko batu dira

2009an zehar Datuak Babesteko Espainiako Agentziak eta Madrileko Erkidegoko, Kataluniako eta Euskadiko agentziek batzea erabaki zuten eta elkarrekin aztertzea beste datu agintaritzak batzuek, gazteak eta adin txikikoak sentsibilizatzeko eta gaitzeko asmoz, egindako proiektuak aztertzeko. Horrela, bada, 18 programa azertu eta dokumentatu zituzten, denak egokiak helburu horiek erdiesteko.

Zereginak partekatzeak esperientzia horrek emaitza berriak ekarri zituen 2010ean, eta [Irlandako Datuak Babesteko Komisarioak](#) egindako lan bat egokitzea erabaki zen. Lanaren izenburua honakoa da: “Erregistratzea, Sisteman sartzeta, Baztertzea: zure pribatutasuna babesten eta zure datuak kontrolatzen”.

CSPE Resource Booklet hezkuntza materialak Hezkuntza Zibikoaren, Sozialaren eta Politikoaren hiru kontzeptu garrantzitsuenak lantzen ditu, hau da, eskubideak eta erantzukizunak eta legea. Hartzaileak Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko irakasleak dira nagusiki, eta gutxi gorabehera 12 eta 17 urte bitarteko adin txikikoei zuzenduta daude; bereziki Herritartasunerako eta Giza Eskubideetarako Hezkuntza bezalako arloetan lantzeko edo elkarbizitza eta herritartasun arduratsua sustatzeko material egokitzat jotzen diren tutoretza saioetan erabiltzeko.

Beraz, 2011n lau agentziek bakoitzaren baliabideak eta ahalmena partekatuko dituzte jatorrizko material irlandarra egokitzeko burutu behar diren lan guztiak egiteko: edukiak egokitu gure gizartera eta legeetara, eskubide intelektualak kudeatu, dokumentuaren edizio grafikoa eta maketazioa egin eta programaren zabalkundea egin hartzaile diren kolektiboen artean.

Uste dugu datuak babesteko agintaritza guztiak batuta eta lehendik dauden programak partekatuz, modu eraginkorrangoan eta ahalik eta pertsona gehienentzat lortuko dugula bestelako balio erantsia.

9.4 Aldizkari ofizialetan datu pertsonalak tratatzeko lan taldea eratzea

Aldizkari ofizialetan datu pertsonal asko argitaratzen dira, eta horrek kezka handia eragiten du herritarrengan, herritarrek uste baitute haien datu-babeserako eskubidea ez dagoela beti behar bezala babestuta. Argitaratzeko agindua ematen duten administrazio publikoetako organoak eta aldizkarien arduradunak ere kezkatuta egon ohi dira, kontuan hartuta datu pertsonalak babesteko oinarritzko eskubidea errespetatuz jardun nahi dutela.

Horri gehitu behar zaio aldizkari ofizialak “jendearen eskurako iturritzat” jotzen direla, eta horrek esan nahi du aldizkarietan agertzen den informazioa aldizkariak eskuratzeko aukera duen edonork ikus dezakeela, eta horrek, aldi berean, zilegi egiten ditu zenbait datu-tratamendu, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak (DBLO) xedatzen duenaren arabera. Horri guztiari gehitu behar diogu gaur egun aldizkari ofizialak elektronikoa direla, eta Interneteko bilatzaileek erraz indexatu dezaketela bertan argitaratutako informazioa. Ondorioz, titularrak ezin du nahi duen erara kontrolatu eta erabili han agertzen diren bere datu pertsonalak, eta horrek garrantzi handia du bereziki babestutako datuak direnean.

DBEB ohartzen da datu pertsonalak argitaratzeak zer ikusi handia duela administrazio egintzen (jakinarazpena) eraginkortasunarekin.

Beste askotan datu pertsonalak argitaratzea, gizarte demokratikoetan administrazio publikoen nahitaezko gardentasunarekin lotzen da. Halako kasuak dira honakoak: norgehiagoka lehiaketak, funtzio publikoan sartzeko hautaketa prozesuak, lanpostuak betetzeko prozesuak, sariak eta bekak, administrazio kontratuak eta ikastetxe publikoetan edo itunpekoetan ikasleak onartzeko prozesuak. Gardentasunak ere laguntzak eta dirulaguntzak argitaratzea dakar.

Edozelan ere, pertsona ororen pribatutasunerako errespetua ere estu-estu lotuta dago gardentasunarekin, eta pribatutasuna oinarritzko eskubidea da Konstituzioak (18.4 artikulua) xedatzen duenaren arabera, nahiz eta ez den erabateko eskubidea, besteak ere ez diren

bezala. Gardentasuna erdietsi nahian gabiltzan garaiotan, eskubideak erabatekoak ez izateak esan nahi du informazio publikoa erdiesteko eskubidearen (Konstituzioaren 105b artikulua) eta euren pribatutasuna babesteko norbanakoen eskubidearen arteko oreka nahitaez lortu behar dela, bakoitzari dagokion araudia harmonizatuz, jakinagatik gardentasuna konpondu gabeko arazoa dela gure lege erregimenean.

Gardentasunaren eta datu pertsonalen babesaren artean oreka guztiz beharrezkoa dela agerian geratu da Europako Batasuneko Justizia Epaitegiak berriki, 2009ko azaroan, eman duen epai batean. Epaia nekazaritza arloko dirulaguntzen onuradunei buruzko informazioa argitaratzeari buruzkoa da, eta bertan esaten da gardentasunak beti egon behar duela datu pertsonalak babesteko eskubidearekin ponderatuta.

Europako Batasuneko Justizia Auzitegiaren ustez, ezin da gardentasuna datu pertsonalak babesteko eskubidearen aurretik jarri besterik gabe; eta egin behar dena da argitalpen-irizpide batzuk finkatu, hain kaltegarriak ez direnak eta administrazio jardueraren baitan publizitatearen eta gardentasunaren printzipioa eta datu pertsonalak babesteko pertsonen eskubidea batzen dituztenak.

Egun, ez dagoenez gardentasunari buruzko legerik, datuak babesteko agintaritzak ahaleginak egiten ari dira, gomendioen bidez, eskubide bi horien arteko oreka lortzeko jarraibideak finkatzeko.

Horregatik denagatik, DBEBk uste du aldizkari ofizialen argitalpenari buruzko Gomendio bat onartzeko premia dagoela. Gomendioaren xedea informazio publikoaren gardentasunerako eta atzipenerako oinarritzko eskubidearen, segurtasun juridikoaren eta administrazioaren jardueraren berezko eraginkortasunaren arteko eta autodeterminazio informatikorako funtsezko eskubidearen arteko oreka erdiestea izango litzatekeela; gainera, gomendioaren hartzaile diren administrazio publikoek eta erakundeek erreferentziazat hartuko lukete.

Horregatik guztiagatik eratu da 2010ean Euskal Autonomia Erkidegoko aldizkari ofizialen (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, lurralde historikoetako aldizkariak, Eusko Legebiltzarreko Aldizkari eta lurralde historikoetako batzar nagusietako aldizkaria) arduradunen arteko lan talde bat, eta erabaki da guztien esperientzia eta ezagutza baliatuta idaztea gomendioa. Gomendioak honako helburuak ditu:

- 1.- Datu pertsonalak babesteko oinarritzko eskubidea eratzen duten printzipioak ezarri behar direla eta balioztatu egin behar dela datu pertsonalen argitarapenak eskubidean duen eragina.
- 2.- Berezi babestutako datuak kontuan hartu behar direla.
- 3.- Datuak atzitzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta aurka egiteko eskubideak bermatu egin behar direla.
- 4.- Aldizkari publikoetan neurri teknikoak ezarri behar direla, datuak jendaurrean egoteko epea igaro ondoren, datu pertsonalen atzipena mugatzeko.
- 5.- Aldizkari ofizialaren bilaketako tresnek aukera eman behar dutela informazio pertsonalaren lokalizazio masiboei mugak jartzeko.
- 6.- Behar diren segurtasun-neurriak ezarri behar direla.

9.5 EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren instrukzioa

2010ean Datuak Babesteko Euskal Bulegoa eta Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusia elkarlanean aritu ziren ediktu bidez argitaratzen diren ebazpen judizialak datuak babesteko oinarritzko eskubidea errespetatu dezaten.

Hain zuzen ere, Datuak Babesteko Euskal Bulegoak ikusi zuen organo judizialek emandako ediktuak aldizkari ofizialetan argitaratzean, hainbat datu pertsonal agertzen zirela bertan, eta maiz (banaketa eta dibortzio prozeduretan) adin txikikoen datuak zirela. Beraz, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko Lege Organikoaren 4. artikulua xedatzen duen datuen kalitatearen printzipioa kontuan hartuta, esan daiteke, helburua ediktua argitaratzea bada, gehiegizkoa dela horrela jokatzea.

Horren ondorioz, eta EAEko Justizia Auzitegi Nagusia jakinaren gainean jarri ondoren, Auzitegi Nagusiak Instrukzio bat onartu zuen iaz, Prozedura Zibilaren Legearen 156.4 artikulua ebazpenen ediktuak argitaratzeko betebeharrak prozesala gauzatu behar dela dioen kasuetan, datu pertsonalak babesteko eskubidearekin ahalik eta kontu handienarekin jokatzeko.

9.6 Datu-babesari buruzko Hiztegi Terminologikoaren argitalpena euskaraz

2010eko martxoan datu-babesari buruzko hiztegi bat argitaratu zuten, gaztelaniazko, frantsesezko eta ingelesezko baliokideekin.

UZEIk egin du eta hizkuntzalariez eta arloko adituez osatutako batzorde teknikoak aztertu. Azkenik, Euskararen Aholku Batzordearen Terminologia Batzordeak onartu du. Bertan jasota dauden terminoak Euskararen Aholku Batzordearen Terminologia Batzordeak datu-babesaren esparruan euskaraz gomendatutako terminoak dira. Datuak Babesteko Euskal Bulegoa, UZEIk proposatutako zerrenda aztertu duen batzorde teknikoan egon zen, arloko aditu gisa.

Hiztegiak datu-babesari buruzko euskarazko ehun termino, zenbait sinonimo eta gaztelaniazko, frantsesezko eta ingelesezko baliokideak biltzen ditu. Beharrezkoa den guztietan terminoen esanahia ere jasotzen du.

Dokumentuaren bukaeran kontzeptu guztien aurkibidea dago, ordena alfabetikoan, aipatu ditugun lau hizkuntzetan.

Hiztegia UZEIk egin zuen eta bertan jasotako terminoak hizkuntzalariez eta arloko adituez osatutako batzorde teknikoak aztertu eta Euskararen Aholku Batzordearen Terminologia Batzordeak onartu zituen. Hiztegi honek euskarazko terminologiaren erabiltzaileen erreferentzia den [EUSKALTERM](#) Terminologia Banku Publikoa elikatzen du. Banku Terminologikoa, bestalde, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren (1998) ataletako bat da.

10. Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoetan egindako prestakuntza ekintzak

10.1 Prestakuntza ekintzen eta jardueren zerrenda

"Datu pertsonalen babesa kontsumitzaileen eta erabiltzaileen oinarrizko eskubide gisa" ikastaroa, kontsumoaren esparruan eskumenak dituzten administrazio publikoetako profesionalei zuzendua. Bilbon, otsailaren 10ean eta 12an.

Datu-babesari eta administrazio elektronikoari buruzko ikastaroa, Bizkaiko Abokatuen Elkargoan. Bilbon, martxoaren 3an

Datu-babesari buruzko oinarrizko kontzeptuei buruzko ikastaroa, Arabako kuadrillei zuzenduta. Ekainean.

"Nola babesten dudan eskuartean dudan informazioa" ikastaroa. Gipuzkoako Foru Aldundian, ekainaren 3an.

Datu-babesa eta administrazio elektronikoari buruzko ikastaroa, HAEE-IVAPek antolatuta Gipuzkoako Foru Aldundiarentzat. Donostian, urriaren 7an.

Telelanari buruzko ikastaroa, HAEE-IVAPek antolatuta. Gasteizen, azaroaren 8an.

Datu-babesari buruzko eta tokiko poliziaren praktika profesionalari buruzko ikastaroa, EUDELek antolatuta udaletako udaltzaintzat. Bilbon, Donostian eta Gasteizen, azaroaren 8an, 9an eta 10ean.

"Datu pertsonalak babestearen gaineko ikastaroa administrarentzat" ikastaroa, EUDELek antolatuta tokiko administrazioetan lan administratiboa egiten dutenei zuzenduta. Bilbon, Donostian eta Gasteizen, azaroaren 15ean, 16an eta 17an.

Bideo zaintzaren inguruko arazo juridikoen eta DBLO betetzeko dituzten zailtasunen gaineko ikastaroa, Bizkaiko Abokatuen Bazkunean. Bilbon, azaroaren 26an.

"Datu-babesaren funtsezko zenbait alderdi" gaia lantzea Eusko Jaurlaritzako EPEko administrarien, laguntzaileen eta mandatarien gai-zerrendetarako.

11. Beste administrazio, agentzia eta erakunde batzuekiko harremanak eta lankidetzak

11.1 *Nazioko foroetan parte hartzea*

Osasunaren Informatikako Espainiako Elkarteak (SEIS) Osasun Datuak Babesteko Foroa antolatzen du urtero. DBEBk beti hartu izan du parte foroan, bereziki 2007an izenpetu zen lankidetzak hitzarmenaz geroztik. DBEBk Ohorezko Batzordean eta Programaren Batzordean parte hartzeaz gain, mahai-inguruak koordinatzen ditu eta konferentzietan eta hitzaldietan ere parte hartzen du. Foroan osasun arloko profesionalak, datu-babesaren esparruko agintaritzak eta esparru teknologikoko profesionalak biltzen dira bakoitzaren esperientziak eta ezagutza trukatzeko elkarrekin, eta, horrela, ziurtatu herritarrei kalitatezko osasun arreta ematen zaiela, eskubideak guztiz errespetatuz.

Foroaren VIII. edizioa Iruñean izan zen 2010eko martxoaren 16an eta 17an. Hona hemen foroaren helburuak:

- Direktiboak, profesional sanitarioak eta arduradun teknologikoak sentsibilizatzea eta kontzientziazatzea kalitatezko osasun arreta bermatzeko. Datu pertsonalak babesteko politika aproposak finkatu behar dira eta informazio sistemetan hartu beharreko neurriak ezarri behar dira.
- Bitartekoak jartzea, datuak babesteko agintaritzek osasun arloko premiak eta berezitasunak zuzenean ezagutu ditzaten, eta horrela, esparru horretan iritzi eta gomendio egokiak eman.
- Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia sustatzea, datu pertsonalen babesari buruzko legedia eta osasun arloan informazioaren segurtasunari buruzko araudia betetzen dela ahalbideratzeko.
- Segurtasun neurriak eta konponbide teknologikoak ezartzen laguntzea, osasun arloan ezarritako gero, prozesuaren kalitatea hobetuko dutelakoan.

Osasun Datuak Babesteko Foroa honela dago antolatuta: hasierako hitzaldia dago, eztabaidarako lau saio eta saio bat ondorioak ateratzeko. Laneko Osasuneko Datu Babesari buruzko Mintegiaren Bigarren Edizioa ere egin berri da. Mintegiaren asmoa esparru horretako langileei prestakuntza praktikoa ematea da eta Espainian datuak babesteko dauden lau agintaritzek hartu dute bertan parte.

Lehendabiziko saioan osasun arloan datu pertsonalen babesak zuen egoerari buruzko hainbat lan aurkeztu zituzten Datuak Babesteko Espainiako Agentziak, Datuak Babesteko Madrileko Erkidegoko Agentziak, INTECOk eta SEIS elkarteak. Bigarren saioan Segurtasun eta Elkarrengarritasun Eskema Nazionalak abian jartzeari buruz eta DBLO garatzen duen Erregelamenduan dagoen segurtasunari buruzko araudiarekiko konexio eta gainjartzei buruz hitz egin zen.

Hirugarren saioa datuak babesteko agentziek azaldutako kasu praktikoei buruz izan zen. Hona hemen bertan aurkeztu zituzten kasuak:

- Segurtasun neurriak osasun datuak transmititzen direnean (postaz egiten diren bidalketak)

- Sekretu gorde beharra urratzea, ukitua ez den beste pertsona bati emateagatik datuak
- Hirugarren enpresa batzuek ikerketak egin ditzaten egiten diren datu-lagatzeeekin lotutako zenbait kasuistika
- Datu-tratamenduak egiteko gaikuntza, hasierako helburuarekin bat ez datorren beste helburu baterako
- Osasun datuen tratamendua, laneko absentismoa kontrolatzeko
- Osasun datuak atzitzea diziiplina espedienteen esparruan
- Historia klinikoa atzitzeko eskubidearekin zer ikusia duen edukia eta problematika
- Historia klinikoaren berri izan duten profesionalen zerrendaren atzipenak

Azkenik, laugarren saioan aztertu zen zein ziren profesionalek eta kudeatzaile sanitarioek izan ohi dituzten arazoak maila asistentzia bakoitzean datu-babesari buruzko arauak ezartzeko orduan.

11.2. Nazioarteko zenbait forotan parte hartzea

11.2.1. Telekomunikazioetako Datu Babesari buruzko Nazioarteko Lantaldea (IWGDPT - Berlingo Taldea)

Lan Taldea bi aldiz batu zen 2010ean, eta bietan Datu-babeserako eta Informazio Askatasunerako Berlineko komisarioa izan zen koordinatzailea. Lehengo bilera Granadan (Espainia) egin zen apirilaren 15ean eta 16an, eta bigarrena Berlinen irailaren 7an eta 8an.

DBEBk lehenengo bileran hartu zuen parte, eta zuzendaria ere egon zen. Bileran datuak babesteko hainbat agintaritza egon ziren, bakoitzak bere herrialdean komunikazioen pribatutasunaren eta Interneten esparruan gertatuko berri eman zuen eta hainbat informazio-dokumentu, laneko dokumentuen proposamen eta gomendio aztertu zituzten. Hona hemen aipagarrienak:

- Interneteko paketeen edukien goiburuak eta edukien zati batzuk ikuskatzeko teknikari (ingelesez DPI-Deep Packet Inspection izenez ezagutzen dira teknika horiek) buruzko laneko dokumentu bat aztertu zen, Interneteko sarbidea ematen duten operadore eta hornitzaile batzuk zenbait trafikotarako lehentasuna emateko erabiltzen dituztelako. Trafikotarako mota horiek operadoreak berak ematen dituen zerbitzuekin zer ikusia izaten dute edo haien interesen esparrukoak izaten dira, hirugarrenen beste zerbitzu batzuk alde batera utziz; baina kontua da zenbaitetan portaerazko marketing zerbitzuak fokatatzeko izaten dira. Lehenengo kasuan sareari eskatu beharreko neutraltasuna urratzen da, baina Taldearentzat kezkarria bigarrena da, ezen teknika hau portaerako publizitatea egiteko erabiltzen bada, pribatutasuna urratzen baitu. Hori dela eta, laneko dokumentu bat onartu zuten eta iraileko batzarrean onetsi zuten.

- "Mundu digitalerako pribatutasunari buruzko gutuna" berrikusi zen. Gutuna Alemaniako datuak babesteko agentziak proposatu zuen eta aurreko bileretan ere eztabaidatu zuten. Azkenean, laneko dokumentu bat onartu zen, eta bertan gomendio batzuk ematen zaizkie erabiltzaileei, Interneten sartzeko zerbitzuen hornitzaileei, agintari publikoei eta legegileei.
- Posta elektronikoko kontuetan "oinordetzan hartzen diren" datuek ekartzen dituzten arazoei buruzko dokumentua berrikusi zen, aurretik egindako bileretan jada eztabaidatu baitzuten. Datuak "oinordetzan hartzen dira" erabiltzaileek (posta elektronikoko) hornitzailea aldatzen dutenean edo titularra (laneko posta) aldatzen denean, eta helbide elektronikoa bera beste pertsona bati esleitzen zaionean. Halakoetan gerta daiteke aldi batean lehenengo titularrari buruzko datuak jasotzea; eta gerta daiteke era bai pasahitzak berreskuratzeko bitartekotzat helbide elektronikoa duten zerbitzuak badira, pasahitzen segurtasuna arriskuan jartzea. Laneko dokumentuak hainbat gomendio ematen die posta elektronikoko zerbitzuen hornitzaileei.
- ISOko batzordeetan ordezkaritza duten parte hartzaileek ISO n pribatutasunari buruzko nazioarteko estandar batzuk onartzeko egin dituzten aurrerapenen berri eman zuten.
- Azkenik, zenbait herrialdetan sare sozialekin gertatuko gora behera batzuez ere aritu ziren.

Urteko bigarren bilera Berlingen izan zen irailean eta DBEBk ezin izan zuen parte hartu agenda arazoak tarteko

11.2.2. Datuak Babesteko Europako Agintaritzen Konferentzia – Pragako Udaberriko Konferentzia

2010eko apirilaren 29an eta 30ean Pragan egin zen Udaberriko Konferentzian, besteak beste, "Gauzen Internetaz" eta adin txikikoak Interneten behar duten babesaz eztabaidatu zuten. Datu-babesaren etorkizunaz ere aritu ziren eta Europako gainbegiratzzaileak esan zuen kontrol agintaritzek selektiboagoak izan behar dutela, eta modu estrategikoagoan jokatu, datuak egon ohi diren esparruetan jardunez. Betiko ikuspegiak alde batera utzi eta eskubidea bermatzeko beste bide batzuk bilatu behar dira, bide sortzaileagoak. Gainbegiratzzailearen esanetan kontrol agintaritzek ez dute defentsiban egon behar; aitzitik, proaktiboagoak izan behar dute.

Honako agiri hauek onartu zituzten:

- 1.- Aireportuetan gorputzeko eskanerrak erabiltzeari buruzko Ebazpena.
- 2.- Segurtasun arazoak direla eta, Europa eta Estatu Batuen arteko lankidetzak poliziala eta judizialaren arloan datuak babesteko estandarrei buruzko Ebazpena.
- 3.- Datu-babesaren eta pribatutasunaren bilakaerari buruzko Ebazpena.
- 4.- Datu-babesaren arloan bai European bai nazioartean, gazteak hezi eta ohartarazteari buruzko Ebazpena.

11.2.3. Datuak Babesteko Agintaritzen Nazioarteko Konferentzia - Jerusalemeko Udazkeneko Konferentzia

Urriaren 25etik 29ra bitartean “pribatutasunaren astea” ospatu zen Jerusalemen, eta honako bi ekitaldiak burutu ziren bertan: batetik, OCDEren pribatutasun politiken 30. urte hurrena ospatzeko jardunaldiak (urriaren 25ean eta 26an), Benjamín Netanyahu-k inauguratuta, eta, bestetik, Datuak Babesteko Nazioarteko Agintaritzen Konferentzia (urriaren 27an, 28an eta 29an). Azken horien gaineko jardueren leloa “Privacy new generations” izan zen, eta bertan aztertu zituzten tresnen belaunaldi berriak eskuratzen ari diren pertsonen belaunaldi berriek pribatutasunaren esparruan izango dituzten erronkak. Hori dela eta, azpimarratu nahi da pribatutasunaren kontzeptuak izaera dinamikoa duela eta pribatutasuna ulertzeko era asko egon daitezkeela, adina, inguru fisikoa eta abar kontuan hartuta.

Nabarmendu zen “privacy by design” bezalako kontzeptuak datu-babesaren arloko araudian txertatzeko premia ikusten dela.

Europako Batzordeak adierazi du Europako zuzentaraua aldatu behar egin behar dela eta aldaketa 2011ko abenduaren 31 baino lehen egingo dela.

11.3. Lankidetzak datuak babesteko Estatuko beste agentzia batzuekin

11.3.1. Koordinazio taldeen funtzionamendua

11.3.1.1. Zuzendarien Taldea

Datuak babesteko agentzietako zuzendariak Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren Egoitzan bildu ziren (Jorge Juan kalea 6) 2010eko ekainaren 6an urteko batzarra egiteko, eta agentzien arteko lan taldeek egindako lanaren berri emateko elkarri. Bileran Datuak Babesteko Euskal Bulegoko idazkari nagusia eta letradu bat egon ziren.

Bileraren bidez lan taldeen lanaren berri eman zen, eta aipamen berezia egin zitzaion EUDELen toki erakundeetarako Jardunbide Egokien Eskuliburuari eta DBEBn inskribatu izanari, administrazio publikoek sustatutako lehendabizikoa izan baita. Era berean, azpimarratu behar da bertan erabaki zela aholkularitza eta erregistroen lan taldeak ereduak kodea izapidetzeko protokoloak egingo dituztela.

Horrez gain, erabaki zen adin txikikoei eta nerabeei zuzendutako informazioa sustatzeko politika bat bultzatzea, datu-babesaren esparruan, prestakuntza jarduerak bat egituratuz denen artean. Erabaki horren emaitza da burutzen ari garen lana Irlandako agentziaren “Sign up, Log in, Opt out: Protecting Your Privacy@Controlling your Data” hezkuntza programa egokitzeko”.

11.3.1.2. Idazkaritzen taldea

Urtean zehar Idazkaritza Nagusien Lan Taldeak —taldearen beste izen bat da: Antolaketa, Berrikuntza, Komunikazioa eta Prestakuntza Lan Taldea— hiru bilera egin zituen, bata presentziala Datuak Babesteko Madrileko Erkidegoko Agentzian, eta beste biak bideokonferentziaz.

- Lehengo bilera martxoaren 3an izan zen APDCMren egoitzan eta honako gaiak aztertu ziren besteak beste:
 - o Datuak babesteko bulegoak koordinatzea eta antolatzea TECNIPAMen parte hartzeari begira: espazioen banaketa, errotulazioa, pertsonala, ekipo informatikoak, proiektuak ekipoak, zabalkundea eta finantzazioa. Horri esker, erakundearen presentzia garrantzitsua izan zen.
 - o Haurrentzako eta gazteentzako prestakuntza materialak egitea. Hasiera batean lehentasunezko proiektutzat jo zen, eta erabaki zen berriro heltzea eta sustatzea proiektua. Erabaki horrek beste erakunde batzuek gauzatutako pribatasun proiektuaz aztertzea ekarri zuen, eta, ondorioz, gure erakundeetan *benchmarking* jarduerak egitea.
- Bigarren bilera uztailaren 6an izan zen, bideokonferentzia bidez. Bileran datuak babesteko nazioarteko zenbait agentziak eta beste erakunde batzuk egindako haur eta gazteentzako 18 proiektu aztertu ziren sakon. Agentzia guztiek adierazi zuten Irlandako proiektua zela abantaila gehien zuena. Proiektua Hezkuntza Zibiko, Sozial eta Politikoko arlorako egin zen eta “*Sign up, Log in, Opt out: Protecting Your Privacy@Controlling your Data*” izenburua zuen. Lau agentzien artean erabaki zuten proiektua egokitzea.

Horretaz gain, beste hauek ere aztertu zituzten bilera horretan: Datuak Babesteko Kataluniako Agentziak eta Administrazio Publikoko Eskolak egindako datu-babesari buruzko lineako (*online*) ikastaro bat, Datuak Babesteko Madrileko Erkidegoko Agentziako funtzionarioentzako ikastaro birtual bat eta Espainiako Agentziaren Administrazio Elektronikoari buruzko Mintegia.

- Hirugarren bilera ere bideokonferentzia bidez egin zen urriaren 18an. Bertan Irlandako proiektua egokia zela berretsi zen eta gure egoerara moldatzea erabaki zen. Horretaz gain, proiektuaren atalak banatu ziren agentzien artean, egokitzeapena egiten hasteko. Besteak beste, egileen eta jabeen baimenen gainean eta konposizio grafikoaren, argitalpenaren eta zabalkundearen gainean hitz egin zen.

11.3.1.3. Lege-aholkularitzak Koordinatzeko Taldea

Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren Lege Aholkularitza eta Ikuskaritzak bi lan taldetan hartzen du parte: Lege aholkularitzak koordinatzeko taldean eta Ikuskaritza taldean.

2010ean bi aldiz batu zen Lege-aholkularitzen taldea, eta beste bi aldiz Ikuskaritza taldea. Hona hemen bileretan landutako gaiak:

2010/03/23

- Erantzukizuna unibertsitateetako ikerketa fitxategien deklarazioaren gainean: fitxategiaren arduradunei buruzko azterketa, eta, hala badagokio, tratamendu-eragileak izan daitezkeenei buruzko azterketa.
- Telefono bidezko komunikazioak atzematea: gaiari buruz ateratako azken epaiak aztertu ziren. Era berean, aztertu zen ea zilegi zen epai horietako irizpide batzuk ezartzea, hala badagokio, datu pertsonalen inguruko beste mota bateko eskaeretan.
 - o Zuzentzeko eskubidea, sexu-aldaketagatik.
 - o Zinegotzien parte hartze politikoa: mugak.
 - o Baja osasun datutzat jotzea

2010/11/12

- • Elkargo Profesionalei buruzko otsailaren 13ko 2/1974 Legearen (Lege hori eguneratu egin zuen 25/2009 Legeak) 5. u) artikuluan eta 10.2.a) artikuluan jasota dauden zigorrak elkargokideei irmoki ezarritakoan jakinarazteari buruzko xedapenen helmena.
- DBLOren 7.2 artikulua bereziki babestutako datuen tratamendua (DBEB):
 - o Hauteskunde prozesuak. Hautagai hautatu eta ez hautatuen adskripzio politikoaren datuen tratamendua. 2003ko maiatzaren 8ko 85/2003 KAren helmena.
 - o Artxibo historikoak. 50 urtetik gora dituzten eta bizirik dauden pertsonen ideologiari, sindikatu afiliazioari eta erlijio edo sinesmenei buruzko datu pertsonaldun dokumentuen kontsulta eta zabalkundea, adostasunik gabe.
- 2010eko uztailaren 15eko Auzitegi Gorenaren Epaiaren gaineko baliozpena, bereziki DBLOren Erregelamenduaren 11. eta 18. artikuluei dagokienez, eta epaitu aurreko arazoen planteamenduari dagokionez.
- Jabeen erkidegoetako bideozaintza
- Administrazio egintzen argitalpen laburutua: 30/1992 Legearen 61. artikulua aplikatzea zigor eta zehapen prozeduretan emandako egintzei. Zenbait kasu.

11.3.1.4. Ikuskaritza Taldea

2010-04-15

- Aurka egiteko eskubidea babestea, datu-tratamendu bati aurka egiteko eskubidez baliatzea legezkoa denean.

- Aldizkari ofizialetan eta erakunde webetan datu pertsonalak ezerezteko edo blokeatzeko behin eta berriz bidaltzen diren ikuskaritza espedienteak eta eskubidea babesteko eskeak sortzen dituzten arazoen gainean eztabaidatzea eta egon daitezkeen konponbideak adostea.
- Bideozaintzaren ingurukoak:
 - o Omnibus Legearen osteko ondorioak.
 - o Kontrol edo bideozaintza zentroak jartzeko eta mantentzeko betekizunak. Segurtasun Pribatuari buruzko Erregelamenduaren 39.1 artikulua helmena, otsailaren 26ko 195/2010 Errege Dekretuko idazkeraren arabera.
 - o Ahotsa eta irudia grabatzea.
 - o Proportzionaltasunaren printzipioa.
- Honako gaiak aztertu ziren::
 - o Auzitegi Gorenaren Erabakia (Zigor arloko sala) esanez instrukzio-epaileek baino ez dutela operadoreei telefono mugikor batetik egindako deien titularraren identitatea eskatzeko gaitasuna.
 - o Auzitegi Nazionalaren Administrazio-Auziekiko Salaren 9/07/09 Epaia (325/08 errekurtsioa), datu-babesaren, norbere irudia izateko eskubidearen eta Konstituzioaren 20. artikuluko informazioaren eskubidearen arteko talka berriro planteatzen duena.
- Organo jurisdikzionalak informazioa ematea prentsari. Epaien zabalkundea.
- Datu pertsonalen zabalkundea norgehiagoka prozeduretan.

2011/10/18

- Zigor Kodearen 197.2 artikulua idatzera berriak ekar ditzakeen ondorioak (Fiskaltzari jakinaraztea ustez delitu diren egiteak), baimenik gabeko datu atzipenak zigortzeari dagokionean.
- Pilatutako espedientei buruzko administrazio ebazpenak hainbat interesduni jakinarazteari buruzko arau-haustea tipifikatzea.
- Proportzionaltasun printzipioa: NANA eskaneatzea eraikin publikoetan bisiten sarbidea kontrolatzeko.
- Datu pertsonaldun fitxategi publikoen atzipenetan arduradunak interes legítimoaren gainean egiten duen kontrola eta jartzen dituen kontrol mekanismoak: Jabetza Erregistroaren eta Katastroaren kasu berezia.
- Instruktoeen gaikuntzak nahikoa helmen ote daukan (Administrazio Prozedura Legearen 78.1 eta 82.1 artikulua) diziplina-espedienteen izapidetzearekin (edo bestelako administrazio prozedurekin) zer ikusia duen informazio pertsonala eskatzeko.

- Arau-hausteengatik ezarritako erantzukizunak esleitzea, tratamendu-eragile batek erakunde publiko batean weba kudeatzean segurtasun-neurriak ez betetzeagatik, kontuan izanda arduradunak ez duela zehaztu zein neurri hartu behar ziren: ACPD
- Gizarte laguntzen publizitatea eta langile publikoen osagarri aldagarria (produktibitatea). Hainbat esperientzia.
- Ziurtagiri digitalak erabiltzeko espezialitateak, ikuskaritza jardueratik eratorritako dokumentuak "modu elektronikoan izenpetzeko" eta jarduera horren ondoriozko administrazio egintzak jakinarazteko.

11.3.1.5. Erregistro eta Teknologian Berrien Taldea

2010ean datuak babesteko lau agentzietako fitxategien erregistroak koordinatzeko lan taldea bi aldiz bildu zen. Bileran bat Madrilan izan zen eta bigarrena bideo-konferentziaz egin zen.

Bi bileretan erregistro autonomikoetatik AEPDren erregistrora egiten diren inskripzioen bidalketa prozesua berrikusi zen. Horrez gain, beste gai hauek ere landu ziren:

2010eko ekainaren 2a

- Egitura organikoan egindako aldaketengatik egiten diren bidalketa masiboak jakinarazi beharrak sortu duen problematika.
- Bereziki babestutako datudun fitxategien jakinarazpenak dakarren problematika, DBLOren Erregelamenduaren 81.5.b) artikulua goi-maila segurtasun neurrietatik salbuetsita egonik eta NOTA programaren egiaztapenak egitearen ondorioz..

Intzidentzia hori dela eta, erabaki zen ez jasotzea datu horiek "bereziki babestutako datu"en atalean eta "bestelako datuak" atalean jasotzea; eta, horrela, oinarritzko segurtasun maila dutela adierazi.

2010eko abenduaren 14a

- Ikerketa klinikoaren eta farmakozaintzaren esparruko Farmaindustriaren datu pertsonalak babesteko ereduak kodea inskribatzea.
- Farmaindustriak sustatutako ereduak kodetik eratorritako ikerketa klinikoko fitxategiak inskribatzea..

11.4 Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren Kontseilu Aholku-emailean parte hartzea

DBEBren zuzendaria Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren Kontseilu Aholku-emaileko kide da. Kontseilu Aholku-emailea bi aldiz bildu zen 2010ean eta zuzendariak bi bileretan hartu zuen parte. Bata uztailaren 8an izan zen eta bestea abenduaren 14an. Bileretan Datuak Babesteko Espainiako Bulegoaren Jardueren Txostenaren berri eman zitzaion

Beste administrazio, agentzia eta erakunde batzuekiko harremanak eta lankidetzak

bertaratuei eta Datu Pertsonalak Babesteko Komunikazio eta Zabalkunde Sarien 2010eko deialdiko epaimahaikide gisa aritu ziren.

11.5. Datu pertsonalen babesaren arloko hitzaldietan, mintegietan eta bestelako jardueretan parte hartzea

["Administrazio elektronikoari buruzko gogoetei buruzko jardunaldia"](#). Jardunaldia Bizkaiko Jaurreiko Abokatuen Bazkun Ohoretsuak antolatu zuen eta Bilbon izan zen martxoaren 3an.

["Sare sozial digitalak: arriskuak ala aukerak?"](#). Eztabaida juridikorako jardunaldi hau Deustuko Unibertsitatean egin zen martxoaren 3an.

["La protección de datos en estados federales i plurinacionales"](#) liburua. Aurkezpena Bartzelonako Abokatuen Elkargoan izan zen martxoaren 19an.

"Euskal Autonomia Erkidegoa: BiskayTIK Proiektua, Euskal Autonomia Erkidearen eta Foru Aldundiekin". [Administrazio Publikoak Berritzeko Informazioaren Teknologiai \(TECNIMAP\) buruzko XI. Jardunaldia](#). Zaragozan izan zen apirilaren 6tik 9ra bitartean

["Datu-babesa Administrazio Publikoetan"](#). Mintegia Madrilen egin zen apirilaren 20an, eta ponentzia honekin hartu zen parte: ["Datu-babesa Euskal Administrazio Publikoetan"](#).

["Segurtasun-neurriak azken erabiltzaileentzat"](#), ["Hirugarren saioaren laburpena eta ondorioak: zenbait kasu praktiko. Datuak babesteko agentzien esperientzia"](#) eta ["Historia klinikoak lagatzea organo jurisdikzionalei"](#). [Osasun Datuak Babesteari buruzko Foroa](#), SEIS elkarteak antolatuta. Iruñean egin zen apirilaren 13an eta 14an.

["Datu-babesa administrazio publikoetan \(IV\)"](#). SOCINFO mintegia. Madrilen egin zen apirilaren 20an.

["Talde-lana, tokiko eGobernuaren alde.Herriarren partaidetza eta zerbitzuen kalitatea"](#). EISCO Biltzarra. Urte horretan EUDELeK antolatua. Bilbon egin zen maiatzaren 20an. DBEBk honako hitzaldiarekin hartu zuen parte: "Informazioaren potentziala esplotatzea, segurtasun eta pertsonen pribatutasuna ziurtatuz aldi berean".

["Segurtasuna, pribatutasuna eta datu-babesa"](#) mintegia. International Working Group on Privacy & Security elkarteak antolatu zuen, Madrilen, ekainaren 8tik 10era bitartean.

["La seguretat des de la privadesa: 2001-2010"](#) jardunaldia. Datuak Babesteko Kataluniako Agentziak antolatuta, Bartzelonan egin zen, Kataluniako Legebiltzarrean, ekainaren 11n.

["Ikerketa klinikoaren eta farmakozaintzaren esparruko Farmaindustriaren datu pertsonalak babesteko ereduak kodea"](#) izeneko jardunaldia. Euskadiko Ikerkuntza Klinikoko Batzorde Etikoak antolatu zuen, Eusko Jaurlaritzaren Farmazia Zuzendaritzarekin eta Farmaindustriaren lankidetzarekin, eta Vitoria-Gasteizen egin zen ekainaren 15ean. .

["Kontsumitzaileak ba al du babesik teknologia berriak direla eta?"](#). Euskal Herriko Unibertsitatearen Udako Ikastaroak. 4.8 Eskola. Ikastaroaren helburua zen teknologia berrien kontsumitzaileei gertatzen zaizkien gorabeheren aurrean zuzenbideak eman ditzakeen erantzunak aztertzeak. Bilbon izan zen, abuztuaren 30ean..

“Datu-babesa osasunaren esparruan. Esperientziak eta jardunbide egokiak” mintegia. Madrilen izan zen, urriaren 14n.

“Datu-babesa ingeniariarentzat” hitzaldia. Vitoria-Gasteizko Ingeniaritzako Unibertsitate Eskolan (Informatika arloa) egin zen, azaroaren 24an.

“Datuak babesteko agintaritzen kontrola hodeian”. CSA-ES + VIII Jornada Internacional SMS Forum Spain mintegia. Bartzelonan egin zen azaroaren 29an.

“Internet eta datu-babesa”. Buber sarien banaketa ekitaldia, Vitoria-Gasteizen, abenduaren 2an.

“Datu-babesaren eta gardentasunaren erronka: informazio atzipena administrazio publikoetan” jardunaldia. APEP-Pribatutasuneko Espainiako Elkarte Profesionala aurkezteko jardunaldia izan zen. Bizkaiko Jaurerriko Abokatuen Bazkun Ohoretsuak antolatu zuen eta Bilbon egin zen abenduaren 2an. DBEBk honako hitzaldia eman zuen: *“Eskubideen arteko oreka. Gardentasuna eta datu pertsonalen babesa”*.

11.6 Aliantza estrategikoak

11.6.1 APEP-Pribatutasuneko Espainiako Elkarte Profesionala (2010eko irailaren 10a)

Irailaren 10ean hitzarmen bat izenpetu zen Pribatutasuneko Espainiako Elkarte Profesionalarekin (APEP), datu pertsonalak babesteko eskubidea sustatzeko gizartean. Lankidetzaren emaitza izan zen abenduaren 2an Bizkaiko Abokatuen Elkargoan egindako jardunaldia. Bertan Belén Cardona Rubet andreak, APEP elkarteko lehendakariak, elkartea aurkeztu zuen eta honako gai hauetaz hitz egin zuten:

- “Datu-babesaren eta gardentasunaren erronka: informazio atzipena administrazio publikoetan” (Carme Sánchez Ors andrea).
- “Eskubideen, Gardentasunaren eta Datu Pertsonalen Babesaren arteko Oreka” (Iñaki Vicuña jauna, DBEBren zuzendaria)

11.6.2 Eusko Jaurlaritza-Gobernuaren Lehendakaritza

2010eko urriaren 20an hitzarmen bat izenpetu zen Eusko Jaurlaritzarekin, Eusko Jaurlaritzako Lehendakaritzarekin eta DBEBren arteko lankidetzak egituratzeko eta euskal gizartearen errealitatean datuak babesteko oinarritzko eskubidea zertan den jakiteko azterketa soziologiko kuantitatiboak eta kualitatiboak egiteko. Lankidetzak esparru horren emaitza izan da Euskal Administrazio Publikoetan Datu Pertsonalen Fitxategien arduradunen artean egindako azterketa, arduradunen balorazioa zein den jakiteko eta haien premiei eta beharrei erantzun ahal izateko. 2011n argitaratuko dira azterketaren emaitzak.

11.6.3 Herriaren Defentsarako Erakundea (Argentina) (2010eko urriaren 28a)

Urriaren 28an [lankidetzarako esparru akordio bat](#) izenpetu genuen Argentinako Errepublikako Buenos Aireseko Herriaren Defendatzailearekin, haurtzaroan eta nerabezaroan informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabilera segurua eta osasungarria sustatzeko, bereziki, haurren eta nerabeen datu-babesarekin eta pribatutasunaren babesarekin zer ikusia badu, dena osorik hartuta.

Lankidetzak-esparru horri esker, Defentsariaren eskaerari erantzunez, Bulegoak baimena eman zuen Buenos Airesko lehen hezkuntzako ikastetxeetako saioetan eta lantegietan pribatutasunari eta datu-babesari buruzko ikus entzunezko hezkuntza-baliabide bat erabiltzeko, 9 eta 11 urte bitarteko ikasleei zuzenduta. Ikus entzunezkoa lau animazio dira, flash formatuan eta irakasleei zuzendutako gida didaktiko bat. DBEBk egin ditu baliabideak, PantallasAmigasen lankidetzarekin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren aholkularitzarekin.

11.6.4. EIIEO-Euskadiko Informatika Ingeniarien Elkargo Ofiziala

Azaroaren 25ean [Lankidetzarako Esparru Hitzarmen](#) bat izenpetu genuen EIIEO-Euskadiko Informatika Ingeniarien Elkargo Ofizialarekin, bata besteari laguntzeko asmoz, datu pertsonalen babesaren esparruan.

Datorren urtean onartutako laneko plangintzan aurreikusi da 2011ko lehenengo hiruhilekoan segurtasun informatikoari buruzko ekitaldi bat antolatuko dela elkargokideei eta EAEko enpresetako IKTen profesionalei eta erakundeei zuzenduta.

12. Barne kudeaketa

12.1 Konpromisoa bikaintasunaren eta etengabeko hobekuntzarekin Datuak Babesteko Euskal Bulegoa kudeatzean

12.1.1 Plangintza

DBEBren lehenengo plan estrategikoak (2009-2011 Plan Estrategikoa) arrakastarako sei faktore kritiko antzeman ziren: herritarrak informatzea eta gaitzea; administrazio publikoetan jardunbide egokiak sustatzea; datu-babesaren esparruan erreferentziazko erakundea izatea Euskadin; datu-babesaren arloko ezagutza sortu eta kudeatzea; kudeaketaren esparrua berritzea, zerbitzu eraginkorragoa emateko, eta pertsonen garapena sustatzea, DBEBko alderdirik garrantzitsuenak direlako.

Arrakastarako faktore kritiko horietatik abiatuta finkatu ziren ildo estrategikoak eta helburu estrategikoak; eta horiek lortzeko hainbat ekintza zehaztu dira denboran zehar. Ekintza horiek erdiestea da 2009 eta 2010eko Kudeaketa Planen helburua. Kudeaketa planetan ekintza bakoitza prozesu batekin, pertsona batekin eta ekipo batekin lotzen da.

2010eko Kudeaketa Planean finkatu dira zein ekintza garatu behar diren, eta oro har, 2010ean ikusi da ekintzen jarraipena egiten jarri dela indarra.

Abenduan, Autoebaluazioa egin ondoren, zuzendaritza batzordeak 2011ko Kudeaketa Plana diseinatu eta onartu zuen

12.1.2 Kudeaketa

12.1.2.1 Prozesuen Mapa eta DBEBren funtsezko prozesuak dokumentatzea

Apirilean DBEBren prozesuen mapa onartu zen, eta, geroago funtsezko prozesuak identifikatu eta dokumentatu ziren. Honako hauek ziren prozesuak: Plangintza Estrategikoa, Aholkularitza Funtzioa, Kontrol Jarduera, Jardunbide Egokiak eta, azkenik, Kanpo Informazioa eta Komunikazioa. Prozesuak dokumentatzeko zereginetan DBEBko ia pertsona guztiek hartu zuten parte, bai eta kontsultore batek ere. Azken horren eginkizuna saio presentzial batzuk dinamizatzea izan zen.

12.1.2.2 Abian jartzea DBEBren intraneta: barne komunikaziorako eta ezagutzaren kudeaketarako tresna

Maiatzaren 31n jarri zen bai DBEBren erakunde intraneta eta intraneta abian jartzeko eta mantentze-lanak egiteko zereginetan aritu dira Bulegoko Erregistro eta Teknologia Berrien Zerbitzua eta Idazkaritza Nagusiko Dokumentazio Zentroa. Intranetaren xedea da, alde batetik, edukiak eskuratzeko gune bat jartzea erakundearen eskura, eta, bestetik, berton la egiten dugunok elkarrekin komunikatzeko eta lan egiteko tresna izatea.

Intranetaren egiturak aukera ematen du kanpoko edukiak eta erakunde webekoak eskuratzeko eta barruko edukiak eta erabiltzaileen parte hartzea ahalbideratzen duten

tresnak ere eskuratzeko. Horrela, intranetaren ataritik zuzenean jo ahal da erakunde web-orrian dauden berariazko edukietara: Fitxategien Erregistroa, erakundeak emandako irizpenak, datu-baseetako kontsultak, bibliotekaren katalogoko kontsultak edo langileen dokumentazioa eta prozesukako kudeaketan sortutako dokumentazioa.

Intranetean atal berezi bat dago: gertaeren egutegia. Egutegiaren helburua da, aldez aurretik gida batean idatzitako irizpideak kontuan hartuta, DBEBko kideek parte hartzen duten gertakarien, ikastaroen, jardunaldien eta abarren inguruko gorabeheren berri emateko gune bat izatea.

Intranetaren kudeaketa egiteko ardura honako zerbitzuetako bi pertsonak dute: Erregistroa eta Teknologia Berrien Zerbitzua eta Dokumentazio Zentroa.

Hona hemen intraneteko edukiak, antolaketaren arabera:

Interesgarrienak:

- Lankidetzaren espazioa: Sharepoint programarako sarbidea da. Bertan arlo desberdinetakoak elkarlanean aritu ahal dira zenbait dokumentu partekatuz.
- Liburutegiko katalogoa: OPAC edo lineako katalogoa kontsultatzeko.
- Web kontsultak Fitxategien Erregistroa: web orriko Erregistroarekin lotzen da
- Prozesukako kudeaketa: prozesuen gaineko dokumentazioa gehitu ahala, dokumentazioa atzitzeko aukera ematen du
- Kudeaketa plana 2011
- Gertaeren egutegia

Alboko menua:

- **Gure erakundea:** prozesukako kudeaketa, zerbitzuen karta, plan estrategikoa eta abar jasotzen ditu.
- **Langileen ataria:** langileen egoerarekin zer ikusia duten gaiak jasotzen ditu: lanpostuen zerrenda, lan baldintzak, prestakuntza, pertsonak asebetetzeko inkesta eta laneko arriskuei buruzko agiriak.
- **Dokumentazio Zentroa:** atal honek ondoko zerbitzuak biltzen ditu: liburutegiko katalogoa, kontratatutako nahiz erabilera libreko datu-baseak, aldizkari elektronikoak, komunikabideen eta prentsaren buletinak pilatzen dituen orria, liburutegi digitala – intereseko dokumentu elektronikoak eskuratzeko-- eta azken garaian liburutegiak jasotakoak.
- **Tresnak:** aurreko ataletan jaso ez den bestelako informazioa biltzen da hemen, eguneroko lanerako balio duen informazioa eta dokumentu praktikoak jasotzen ditu: web kontsultak fitxategien erregistroa, txantiloiak eta ereduak, eskuliburuak, gidaliburuak, hizkuntza-tresnak (hiztegiak, estilo liburuak eta abar), lotura interesgarriak biltzen dituen orri bat, Delicius gogokoak eta kanal anitzeko kontsulten datu-babeserako sarbidea ematen duen atala.

- **Berrien atala:** hemen jasotzen dira aurreko ataletakoak diren gaiei buruzko berriak, barruan interesekoak izan daitezkeelakoan.

Menuen sistemak honakoak ditu: atariaren menua, zenbait atal eta azpiatalekin eta karpeten menuak..

12.1.2.3 Kanak Anitzeko Arretarako Sistema (KAS)

2010eko abenduaz geroztik DBEBk kanal Anitzeko Arreta Sistema bat du gure zerbitzuak eskatzen dituzten pertsonen eta erakundeen ematen zaien lehengo arreta antolatzeko eta herritarren premietan eta espektatibetan oinarritutako ezagutza kudeatzeko. Hona hemen harremanetarako erabil daitezkeen bideak: telefonoa, faxa, posta elektronikoa edo ohiko posta, bertara etorrira eta web bidez.

KASen erregistratzen diren datuak DBEBri eskatzen zaizkion arretari eta zerbitzuei buruzkoak dira, eta batez ere kontsultak --telematikoa, idatzizkoak nahiz ahoz egindakoak-- edo Bulegoak eskaintzen dituen zerbitzuei edo produktuei buruzko eskaera izaten dira. Eskaera horiek bestelako prozeduretatik kanpo geratu ohi dira: salaketen espedienteen kudeatzailea, babes eskeena eta abar edo Datuen Fitxategien Erregistroa.

KASen jasotako datuak aztertuz gero, jakin daiteke zein zerbitzu eta kontsulta eskatzen diren batez ere, zein erakunde edo pertsona diren eskatzaileak eta zer erantzun zaien. Tresna berri hau probatzeko lehen fasea 2011ko lehenengo sei hilabetean egingo da eta erregistratutako datuak aztertzeaz gain, ekintzan duten eragina ere aztertuko da.

Era berean, erregistro eta kudeaketa sistema honek DBEBren Zerbitzu Kartan jasotako konpromisoak betetzearen gaineko ebaluazioa egiteko era balio du, bai eta Zerbitzuaren Kalitateari buruzko Galdetegia aplikatzeko ere.

12.1.2.4 Zerbitzu Karta

2001ean DBEBren [Zerbitzuen Karta](#) onartu zen, herritarrei zuzendua. DBEBk eskaintzen dituen zerbitzuen hartzaileak nor ziren aztertu eta gero, erabaki zen herritarrei zuzendutako zerbitzu karta bat egitea, alde batera utzita, geroago egiteko, administrazioei zuzendutako beste bat.

Zerbitzu Kartak herritarren eskubideak eta betebeharrak jasotzeaz gain, Datuak Babesteko Euskal Bulegoak ondoko zerbitzuak ematean bere gain hartzen dituen konpromisoak ere jasotzen ditu.

- Herritarrekiko arreta (telefono bidezkoa, posta elektronikoa bidezkoa eta presentziala)
- Salaketen kudeaketa
- Babes zerbitzua
- Fitxategien publikotasuna
- Web orria eguneratzea

Konpromiso bakoitzaren deskribapenaz gain, betetze maila neurtzeko adierazlea edo adierazleak ere jaso dira.

Dokumentua DBEBko hainbat zerbitzutako kideren artean eta zuzendaritza taldearen artean egin dute, azken horrek onartu baititu konpromisoak eta Zerbitzu Karta osotasunean.

Neurketan ateratzen diren emaitzak --urtero argitaratu dira-- Bulegoren etengabeko hobekuntzarako erabiliko dira orokorrean, baina bai eta kartan jasotako zerbitzuak hobetzeko ere. Izan ere, zerbitzu kartek badute kalitatea kudeatzeko beste eredu batzuek (EFOM eta ISO 9001:2000) ez duten bestelako balio erantsia, eta da epe laburrean hobetzea helburutzat dutela.

12.1. 3 Ikaskuntza eta Berrikuntza

12.1.3.1 Lehengo urtea Q-Epea - Erakunde Publikoen Elkargune Aurreratuaren kide gisa esperientziak partekatzen

Datuak Babesteko Euskal Bulegoak aukera izan du, Q-Epeako erakunde publikoen ikaskuntza partekatuko taldeko kide bezala, Bulegoaren esperientziak beste kidekin partekatzeko. Taldean beste 25 euskal erakunde daude, esate baterako, Bilboko, Vitoria-Gasteizko eta Getxoko udalak, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Arabako foru aldundiak, Eusko Legebiltzarra, IHOBE, Osakidetza eta abar.

DBEBk honako jardueretan hartu zuen parte 2010ean:

- Sorkuntza saio bat Neuronilla.com enpresarekin (urtarrila)
- Zerbitzu kartei buruzko jardunaldia: zenbait administrazio publikoen esperientziak (martxoa)
- Ezagutzaren kudeaketarako tresnak (martxoa)
- [Herri Administrazioetako Kudeaketa Bikaintasunari buruzko III. Biltzarra](#) (ekaina)
- Laneko Kontziliazioari eta Pertsonen buruzko inkesta (iraila)
- Lidergoaren eta kudeatzaileen eskumenen ebaluazioa (urria)

Talde horretan parte hartzen dugunez, **Q-Epearen Bikaintasunaren Bilatzailean** sar gaitzke, eta han ikusi bikaintasunaren arloko sariak jaso dituzten euskal erakundeek kudeaketa jardunbideak. Era berean, jardunbideei buruzko Adierazle-sorta bat ere ikus daiteke bertan. Adierazleen horien bidez, gure erakundeek estrategien emaitzak erka ditzakegu.

12.1.3.2 Innobasquerekin lankidetzaren Berrikuntza erdiesteko

2008an DBEBk Innovasque-Berrikuntzaren Euskal Agentzian sartzea erabaki zuen, berrikuntzaren bideratzailea den erakunde bazkide bezala. Innobasque Euskadin esparru

guztietan berrikuntza koordinatzeko eta sustatzeko eta izaera ekintzailea eta sormena sustatzeko sortu zen.

Esan behar da DBEBk Gizarte Berrikuntzaren arloan lagundu duela eta beste i-talde bitan ere hartu duela parte: Gobernatzako i-taldea era Gizarte Berrikuntza Balioen i-taldean.

2010ean Gobernantzako i-taldeak gogoeta berezia egin zuen argitzeko ea Genero Ikuspegia (GI) txertatu behar zen parte hartze prozesuetan. Dominique Saillard-ek (Eudel) aurkeztutako azterketa bat izan zen eztabaidaren jatorria. Zentzu horretan, esan behar da genero ikuspegia txertatzeak ez duela esan nahi prozesuetan emakume gehiago sartu behar direnik; aitzitik, helburua da harantzago joatea eta egoerak bestelako ikuspegi batetik aztertzea, alderdi aldarrikatzaile bat gehituz.

Azkenik, erabaki zen herritarren parte hartzearen esparrua aztertzea, prozesuaren praktika (metodologia, arrakastaren zergatiak, porrotarena eta abar) aztertzea, egituran izan duen inpaktua neurtzea eta erronka berriak aztertzea. Planteatu zen i-Taldearentzako azken formatua 2. belaunaldiko eskuliburu bat izan zitekeela (akatsei ikasi) eta bertan jaso zein diren arraska ziurtatzen duten aldagaiak.

Era berean, 2010ean Balioen eta Gizarte Berrikuntzaren i-Taldeak Gizarte Berrikuntzarako Balioak identifikatzeko proposamena egiten jarraitu zuen, eta bi urteko lanaren emaitza izan da [*Liburu berdea, 2030. urteko Euskal Gizarterantz*](#). Liburuak balio berritzaileak ditu eta eztabaida sustatu nahi du, gizartearen parte handiarekin. [*Aurkezpena*](#) 2010eko maiatzaren 18an izan zen BBKren Kultura Aretoan. Ekitaldian Novia Salcedo Fundazioak, Bizkaiko Foru Aldundiak, Uliker 3 aholkularitzak, Javier Elzo soziologoak eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoak hartu zuten parte. Hona hemen euskal gizarte berritzailearentzat proposatutako baloreak: ezagutza, elkar lana, aldetara zabalik egotea eta ikuspegi globala edo globalizazioa. Horretaz gain, dokumentuan zehatz jasotzen dira horiei atxikitako portaerak, eguneroko jardueren kudeaketan txertatzeko. Aldaketa prozesu honetan kudeatu behar diren "motoreak" eta "trabak" ere zehazten dira.

12.1.3.3 DBEBko pertsonen ikaskuntza, DBEBren kudeaketa hobetzeko

DBEBren kudeaketa aurrera egiten ari da eta berritzen, beraz, bertan lan egiten duten pertsonen ahalegin handia egin behar dute EFQM eredua eta ereduarekin lotutako metodologiak ulertzeko. Zehatz esateko, DBEBko 6 pertsonen hartu dute parte ondoko prestakuntza ekintzetako bateren batean: Prozesukako Kudeaketa, Politika Publikoak eta Bikaintasunaren eta Kalitatearen Printzipioak. Gainera, zuzendaritza taldeko bi pertsona ari dira Euskaliteko Ebaluatzaileen Taldean sartzeko kasu praktiko bat aztertzeko ikastaroa egiten ari dira. Azkenik, esan behar da DBEBko beste pertsona bat erakunde baten kanpo ebaluazioan ari dela parte hartzen.

12.1.4 Ebaluazioa

12.1.4.1 DBEBren kudeaketan zein arlo hobetu zehazten: Bigarren Autoebaluazioa

Ebaluazioen xedea da –autoebaluazioak izan ala kanpo eboluzioa izan—zuzendaritza taldeak gure kudeaketaren gaineko balorazioa eta gogoeta egiten duela bultzatzea, hartara, erakundearen kudeaketan daude indargunean eta hobetzeko guneak adostu ahal izateko. Zalantzarik gabe, kudeaketa bikaintasunari buruzko EFQM eredua oso baliagarria da guretzat erreferentzi kontzeptual gisa, ez delako eredu preskriptiboa.

2009ko abenduan DBEBren lehendabiziko autoebaluazioa egin genuen eta urte bete beranduago bigarren EFQM autoebaluazioari ekin genion, Reder metodoa hartuta, puntuaziorik gabe, eta Euskaliteko ebaluatzaile senior baten laguntzarekin.

Identifikatu diren hobetzeko arloak eta 2011ko Kudeaketa Planak datorren urteko helburu berriak eta proiektuak zein izango diren esaten digute, eta honakoa dira besteak beste: Aginte Koadro Integrala diseinatu, interes taldeak era aktiboan entzun, DBEBren Zerbitzuen Katalogoa diseinatu, pertsonen arloak hainbat ekintza burutu.

Era berean, 2011n dugun helburua da lehenengo autoebaluazioa egitea Reder metodoarekin eta puntuazioarekin. Gainera, azaroan eskatu nahi diogu Euskaliti Kanpo Kontrastea izeneko ebaluazio laburraren modalitatea egiteko. Kudeaketa hobetzeko egin ditugun ahaleginei esker, pozik jasoko genuke gure lehenengo saria, adibidez, Kalitatearekiko Konpromisoaren Diploma.

12.2 Pertsonen kudeaketa

12.2.1 Laneko Arriskuen Prebentzioko Politika

Laneko Arriskuen Prebentzioko legeak hainbat betebeharrak eta obligazioak ezartzen ditu, eta horien artean prebentzio plan bat ezartzea dago. Prebentzio planak erakundearen lan jarduerak guzti-guztia hartu behar du bere baitan. Datuak Babesteko Euskal Bulegoak uste du hori oinarritzeko egin beharra dela.

Datuak Babesteko Euskal Bulegoak uste du laneko segurtasuna, pertsonen osasuna eta lantokia zaintzea funtsezko jarduerak direla erakundea kudeatzeko.

DBEBn lan egiten dugun pertsona guztiok dugu arriskuen prebentzioaren ardura, nahiz eta zuzendaritzak izan prebentzioa behar bezala kudeatzeko erantzukizuna, hartara, lana behar bezalako baldintzetan eta ahalik eta modurik eraginkorrean egiteko eta arlo horretan hobetzeko, eta bidez batez, laneko ongizatea eta asebetetzea handituz. Zentzu horretan, laneko segurtasuna eta osasuna pertsonen eskubideak izateaz gain, DBEBren obligazioak ere badira, eta legearen arabera gutxienezko betekizunen gainetik dago, helburua delako betako pertsonak ahalik eta seguru, osasuntsu eta ondoen egotea.

Datuak Babesteko Euskal Bulegoak Laneko Arriskuen Prebentzioko ondoko politika hartzen du bere gain, prebentzioa sendotu eta hobetzeko ikuspuntutik abiatuta:

- Zuzendaritza taldearen konpromisoa prebentzioaren arloko helburua planifikatu eta erdiesteko.

- Bulegoaren Prebentzio Plana gauzatzea eta eguneratzea, Bulegoaren kudeaketako ohiko gainontzeko alderdiekin batera uztartuz.
- Pertsonen prebentzioko jardueren berri ematea eta pertsonen ere parte hartzea jardueretan.
- Pertsona bakoitzari, bere laneko jardura kontuan hartuta, Prebentzio planari buruzko informazioa, prestakuntza eta bere laneko arriskuen berri ematea, bai eta horiek gutxitzeko eta/edo desagerrarazteko neurriak azaltzea ere.
- Laneko Arriskuen Ebaluazio Plana egitea eta eguneratzea, pertsonen eta ondasunen dituzten arriskuen prebentzioa bermatzeko eta kontrolatzeko eta egon daitezkeen larrialdi egoerei erantzun ahal izateko.
- Bulegoan lan egiten duten pertsonen bermatzea urteroko osasun azterketa, bakoitzaren lan jardueren arabera.
- Prebentzio plana betetzen dela eta eraginkorra dela egiaztatzeako kontrolak egitea eta emaitzak egokiak ez badira, hori zuzentzeko neurriak hartzea.

12.2.2. Laneko arriskuen prebentzioaren arloko 2010eko jardura plana

Laneko Arriskuen Prebentzio Planeko 2010eko Jardura Planeko ekintza hauek burutu ziren 2010ean:

12.2.2.1 Prebentzio plana

- Segurtasunaren, Higienaren eta Ergonomia/Psikosoziologiaren esparruan Jardueren Urteko Plana egitea eta finkatzea.
- Prebentzio ekintzak eta ekintza zuzentzaileak planifikatzea.
- Arriskuen ebaluazioa berrikustea.
- Istripu eta gaixotasun profesionalak ikertzeko protokoloa.
- Ingurumen-baldintzak ebaluatzea (tenperatura, hezetasuna eta airearen abiadura).

12.2.2.2 Larrialdietako Plana

Larrialdi-simulazioak eta simulazioen gaineko txostenak egitea.

12.2.2.3 Informazioa eta barne komunikazioa

Arriskuen eta ingurumen-baldintzen ebaluaziotik datozen jardueren gaineko informazioa.

12.2.2.4 Urteko oroitidazkia egitea eta ondorioak

Egindako jardueren gaineko oroitidazkia eta emaitzak

12.2.3. Osasunaren zainketaren arloko 2010eko jarduera plana

Laneko Arriskuen Prebentzio Planeko 2010eko Jarduera Planeko ekintza hauek burutu ziren 2010ean:

12.2.3.1 Protokoloak ezartzea

- Arriskuen balioztapena aztertzea.
- Arriskuen eta langilearen lanpostuaren arteko lotura.

12.2.3.2 Mediki azterketak

- Azterketak egitea, protokoloak kontuan hartuta
- “Mediku txostenak” egitea
 - o Emaizten azterketa epidemiologikoa
 - o Aholkularitza / Balorazioa / Informazioa
 - o Osasunaren sustapena

12.2.3.3 Urteko oroitidazkia egitea eta ondorioak

Egindako jardueren gaineko oroitidazkia eta emaitzak.

12.3. Organigrama eta langileen plantilla

12.3.1 Organigrama

Zuzendaria	IÑAKI VICUÑA DE NICOLÁS
Idazkari nagusia	NIEVES MARTÍNEZ DE ANTOÑANA BLANCO
Lege-aholkularitza eta Ikuskaritza Arloaren arduraduna	ANA MARIA APERRIBAI ULACIA
Erregistroaren eta Teknologia Berrien Arloaren arduraduna	PEDRO ALBERTO GONZÁLEZ GONZÁLEZ

12.3.2 Langileen plantilla

Hona hemen 2010eko abenduaren 31ko datan eta 2006ko maiatzean onartutako Lanpostu Zerrendaren arabera egindako aurrekontu-plantilla:

AURREKONTU-PLANTILLA		
		Dolazioa
GOI-KARGUDUNAK		
Zuzendaria		1
FUNTZIONARIOAK		
Dest. Osag.	Berar. Osag.	
28	I-A	3
27	II-B	4
25	III-A	2
25	III-B	1
25	III-C	1
20	V-A	1
20	V-C	3
18	VI-A	1
	GUZTIRA	17

12.3.3 2010eko ekitaldian lanean aritu direna

2010ean honako Bulegoko lanpostu hauek beteta egon dira:

Idazkari nagusiaren lanpostua.

- Erregistroaren eta Teknologia Berrien arduradunaren lanpostua.
- Lege Aholkularitza eta Ikuskaritzaren arduradunaren lanpostua.
- Letradu instruktore-ikuskatzaileen hiru lanpostu.
- Auditore informatikari ikuskatzaile lanpostu bi.
- Prestakuntza, informazio eta dokumentazio teknikari lanpostu bat.
- Itzultzaile-dokumentalista teknikari lanpostu bat.
- Kudeaketaren administrari koordinatzaile lanpostu bat
- Administrari/informatikari lanpostu bat.
- Goi-kargudunaren idazkari lanpostu bat.
- Administrari lanpostu bat.

Horiez gain, Dokumentazio Zentroa eta Informazioa eta Dokumentazioa Kudeatzeko eta Artxibatzeko Zentroaren proiektua garatzeko zerbitzu eginkizuna mantendu da.

Hona hemen 2010eko abenduaren 31n plantillaren egoera sexua kontuan hartuta:

Lanpostu kategoria	Gizonak	Emakumeak	Guztira
Zuzendaria	1	0	1
Goi-mailako teknikariak	5	6	11
Administrariak	1	3	4
GUZTIRA	7	9	16

12.3.4. Lanpostuak betetzea

2010eko irailaren 28an DBEBn [karrerako funtzionarioei gordetako zenbait lanpostu betetzeko lehiaketaren deialdia](#) egin zen. Deialdia 2010eko urriaren 28an argitaratu zen

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian. Deialdiaren ebazpena 2011ko lehen hiruhilekoan egitea aurreikusi zen.

2010eko abenduaren 20an [lehiaketako balorazio batzordea nola dagoen osatuta](#) argitaratu zen.

Deitutako lanpostuak behin-behineko egoeratan daude beteta, zerbitzu eginkizunetan. Hona hemen:

- Administrari informatikaria
- Auditore informatikari ikuskatzailea
- Auditore informatikari ikuskatzailea
- Ltradu instruktore-ikuskatzailea
- Ltradu instruktore-ikuskatzailea

12.4. Aurrekontu, kontabilitate eta ondare kudeaketa

12.4.1. 2010eko aurrekontua

2/2004 Legearen 14. artikulua honakoa ezartzen du: "Datuak Babesteko Euskal Bulegoak urtero-urtero aurrekontu-aurregitasmoa egin eta onartu beharko du. Gero, Eusko Jaurlaritzara bidali beharko du, han, behar bezain ondo bereizita, Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan sar dezaten, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu-sistema arautzen duten legeen arabera.

Aipatutako prozedura bukatu eta gero, DBEBk 2010erako gastu-aurrekontua onartu du. Hona hemen laburpena:

GASTUAK		Hasierako kredituak
1	Pertsonaleko gastuak	1.112.387,00
2	Gastu arruntak eta zerbitzuak	574.329,00
4	Transferentzia arruntak	
6	Inbertsio errealak	229.369,00
8	Finantza aktiboak	4.700,00
Gastuak guztira		1.920.785,00

12.4.2 2010eko Aurrekontu exekuzioa

Aurrekontu exekuzioa ondoko xehetasunen arabera egin da:

SARREREN AURREKONTUA 2010						
KAPITULUA	KAPITULUEN IZENA	Hasierako aurreikuspenak	Eskubide garbiak	Egindako sarrerak	Kobratu gabe	Exekuzio egoera
3	Tasak eta bestelako sarrerak		13.328,97	1.308,73	12.020,24	
4	Transferentzia arruntak	1.590.238,00	1.556.861,00	1.556.861,00		97,90%
5	Ondare sarrerak	50.000,00	21.515,51	14.164,47	7.351,04	43,03%
7	Kapital transferentziak	280.547,00	280.547,00	280.547,00		100,00%
	Sarrerak guztira	1.920.785,00	1.872.252,48	1.852.881,20	19.371,28	97,47%
AURREKONTUEN GASTUAK 2010						
KAPITULUA	KAPITULUEN IZENAK	Kredituak guztira	Onartuta obligazioak	Egindako ordainketak	Ordaindu gabe	Exekuzio egoera
1	Pertsonaleko gastuak	1.112.387,00	1.000.824,31	999.056,58	1.767,73	89,97%
2	Gastu arruntak eta zerbitzuak	574.329,00	421.443,00	358.440,60	63.002,40	73,38%
4	Transferentzia arruntak					
6	Inbertsio errealak	229.369,00	51.130,82	14.856,70	38.449,12	22,29%
8	Finantza aktiboak	4.700,00				
	Gastuak guztira	1.920.785,00	1.473.398,13	1.372.353,88	103.219,25	76,71%

2010eko Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen Legea aldatzen duen ekainaren 24ko 3/2010 Legearen seigarren xedapen gehigarriak xedatutako betetzeko, DBEBko aurrekontuen I. kapituluko zenbait partidetan atxikipenak egin ziren, eta, ondorioz, transferentzia arruntak hasieran onartutako aurrekontuan jasotakoa baino gutxiago izan zen, 33.377 euro gutxiago.

Era berean, ondare-sarrerak (bankuko interesen ordainketak) aurreikusitakoak baino askoz txikiagoak izan dira, egun indarrean dauden interes tipoez ezarri direlako.

Beste alde batetik, Bulegoak 2009an ezarritako 60.101 euroko zehapen bat kobratzeke dago oraindik. Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 19. artikulua urratzeagatik jarritako zehapena da, eta Lege beraren 22.3. i) artikulua xedatzen duenez, arau-hauste larritzat jo da.

Borondatezko ordainketa epea bukatu zenez, eta isuna ordaindu gabe zegoenez, 2009ko abenduaren 29an premiamendu bidezko prozedura hasteko probidentzia onartu zen, zordunaren ondarearen aurka exekuzio-prozedura hasiz. Horren ondorioz, organo diru-biltzaileak (Zerga Administrazioako Estatuko Agentzia) zenbait diru-sarrera egiten ditu aldiro eta 36.061 euro gehi premiamendu errekaruari dagokion zenbatekoa biltzeko ditu. Zenbatekoa 12.020 eurokoa da.

Gastuaren exekuzioa dela-eta, zera aipatu beharrean gaude:

- I. Kapituluaren % 89,97 exekutatu dela arrazoitzeko, aipatu behar da arian-arian lanpostuak betetzen joan direlako gertatu dela. Hala ere, oraindik guztiak ez dira bete.

- II. Kapituluaren % 73,38 exekutatu dela arrazoitzeko, esan behar da ohiko administrazio egituraren funtzionamendu gastua txikiagoa izan dela, lanpostu guztiak ez direlako bete, hain zuzen ere.
- VI. Kapituluaren % 22,29 exekutatu da. Zatiarik garrantzitsuena zenbait aplikazio informatiko garatzeko izan da (Espedienteen kudeatzailea). Bestalde, DBEBren sistemen plana oraindik garatze-fasean ari da.

12.4.3 2009ko auditoria

2008ko azaroaren 5ean, Bulegoa sortu zenetik 4 urte igaro zirela eta, Bulegoan bertan deliberatu genuen komeniko litzatekeela, otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 13. artikulua xedatzen duenarekin bat, Kontrol Ekonomikoko Bulegoari eskatzea, gure kudeaketa hobetzeko egokia izango delakoan, kontu-auditoria bat egiteko Bulegoari, eta, hartara, egiaztatu ea DBEBren ekonomia- eta finantza-kudeaketak Bulegoari esparru ekonomikoan dagozkion xedapenak eta jarraibideak betetzen dituen.

Eusko Jaurlaritzaren 2010eko otsailaren 9ko Gobernu Batzordearen akordioz, Kontrol Ekonomikoko Bulegoan egindako Auditorien Urteko Plana onartu zen. Plan horretan jasota dago finantza-auditoria bat egingo zaiola Datuak Babesteko Euskal Bulegoari.

Aurkeztu ziren eta auditatu ziren kontuak 2009ko abenduaren 31n bukatutako urteko ekitaldiari zegozkion eta honako dokumentuak aurkeztu ziren:

- Egoeraren txostena
- Irabazien eta galeren kontua
- Memoria, eta memorian honako hauek jasota:
- Egoeraren txostenari buruzko eta Irabazien eta Galeren Kontuaren azalpen-oharrak.
- Aurrekontuaren likidazioaren egoera.
- Aurrekontu-emaitzaren egoera.
- 2009ko ekitaldiko diruzaintzaren kontua.
- Aurreko ekitaldietatik kobratu beharreko eskubideen eta ordaindu beharreko obligazioen egoera eta bilakaera.
- 2009ko ekitaldiko diruzaintzako gerakina.
- 2009ko ekitaldiko helburuak noraino bete diren jakiteko memoria.

Auditoriaren azken txostenak dio Bulegoak aurkeztutako urteko kontuek "2009ko abenduaren 31n DBEBk zuen finantza eta ondare egoera zehatz-zehatza adierazten dutela, garrantzizko alderdiei dagokienez; horretaz gain, data horretan bukatutako ekitaldian egindako eragiketen eta eskuratutako baliabideen eta aplikatutakoen emaitzak jasotzen dituzte, eta kontuan ondo ulertzeko eta interpretatzeko behar den informazio guztia ere jaso zuten, aurreko ekitaldian ezarritakoekin bat datozen esparru publikoko printzipio eta arau kontableekin bat."

12.5. Baliabide materialak

12.5.1. Egoitza

Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren egoitza EJI Eri alokairuan hartutako lokaletan dago, Apaizgaitegiaren eraikinaren atzeko aldean. Hona hemen helbidea: Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalea 71-3.

12.5.2. Beste zenbait kontratu txiki

Hainbat kontratu txiki egin dira DBEBren funtzionamendua bermatzeko. Garrantzitsuenak honakoei buruzkoak dira:

- lokalen alokairua
- ekipo informatikoen alokairua
- fotokopiagailuen mantentze-lana
- material informatikoa eta bulegokoa
- egunkariak, aldizkariak eta liburuak erostea
- posta bidezko komunikazioen zerbitzua
- aplikazio informatikoen mantentze-lanak eta ustiapena
- hezkuntza sistemarako materialak egitea
- zenbait ekitaldi antolatzea eta halakoetan parte hartzea
- eskuliburuak eta beste zenbait elementu diseinatzea
- urteko oroitidazkia argitaratzea
- erakunde publikoetako fitxategien arduradunen informazio bilketa
- sare sozialei buruzko bideotutorialak egitea
- pozesukako kudeaketari buruzko aholkularitza zerbitzua
- gazteentzako mikrogunea garatzea
- fotokopiagailu bat erostea
- altzairuak hobetzea
- bideokonferentzien sistema hobetzea

12.5.3 Egitura teknologikoa eta aplikazioak garatzea eta hobetzea

Aplikazioak mantentzeko eta garatzeko DBEBren eta EJIEn arteko lankidetzak hitzarmenari esker (addenda 2010) egitura informatikoaren mantentze-lana egin da eta honako aplikazioak garatu eta hobetu dira:

- Erakunde sarea, aplikazioak eta tresnak instalatzea, ostatu ematea, material informatikoa lagatzea, lizentzien mantentze-lana egitea eta lizentziak erostea, eta abar.
- Aholkularitza eta laguntza teknikoa plan eta proiektu informatikoak zehatzeko eta proiektuak garatzeko, mantentze lanak egiteko eta ustiatzeko; estandarrak betetze direla ziurtatuz eta aplikazioan behar bezala inplementatzen direla ziurtatuz.
- DBEBren Lege-aholkularitzaren arloko Espedienteak Kudeatzeko Sistemaren funtzionamendu probak eta datu migrazioak bukatzea benetako inplantazioa egin aurretik.
- 2008an garatu eta 2009an inplantatu zen datu pertsonalen fitxategien erregistroaren informazio sisteman etengabeko mantentze-lanak egin behar izan dira behar bezala funtziona zezan.
- Aplikazioen mantentze-lan zuzentzaileak, funtzionalitateak ibil zitezen.
- Aplikazioak egokitzeko mantentze-lanak. Mantentze-lanak sistemaren operazio-ingurunean gertatutako aldaketen ondoriozkoak izan dira.

12.6 Kudeaketa iraunkorra eta ingurumen inpaktuak

12.6.1 Birziklatze selektiboa

Datuak Babesteko Euskal Bulegoak ez du apenas eraginik ingurumenean, eta, beraz, ez du gastu edo inbertsio handirik egin behar balizko inpaktuak gutxitzeko.

Hala ere, DBEBk barneratuta duen konpromiso bat da ingurumena artatzeko balioak errespetatzen duen kudeaketa modu bat lortzea, hau da, baliabide naturalen zentzuzko erabilera erduetan oinarritutako garapen jasangarria lortzeko balio duena; horretarako funtsezkoa jotzen da langileen lankidetzak, hondakinak banatzen.

Horretarako, hondakinak sailkatzeko ontziak jarri dira administrazio gunetan sortzen diren hondakinak modu selektiboan jasotzeko.

- Papera jasotzeko ontziak
- Enbalajeak eta plastikoak jasotzeko ontziak, toki zentralizatu batean.
- Pilak jasotzeko ontziak.

12.6.2. Kudeaketa jasangarria: ingurumen inpaktua

Ingurumen inpaktua modu aktiboan kudeatzea lotzeko lehentasunetako bat da materialen eta ekipoen bizi zikloaren kudeaketa eta erabilera optimizatzea.

Teknologia berriei esker asko gutxitu da paperaren kontsumoa, baina, hala ere, bulegoko hondakinen %90 papera da.

Paper premia gutxitzeko eta, beraz, kostuak eta tokia aurrezteko modu bat izan da -- adibidez, 2009ko kopuruarekin alderatuta % 38 aurreztu da-- paperaren kontsumoa zaintzea, fotokopiak bi aldeetatik aterata, eta dokumentuak formatu digitalean gordetzea eta ez inprimatzea derrigorrezkoa ez bada eta baliabide elektronikoak erabiltzea, Internetek ematen dituen aukerak baliatuz.